

3seuskadi

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren erantzunak erronka sozialei

**Hurbilpena Eskubide Sozialen Europako Zutabetik
eta Garapen Jasangarrirako Helburuetatik**

Uztaila2025



3seuskadi

**Hirugarren Sektore Sozialaren
Euskal Behatokia**

Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social



ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Egileak: Hirugarren Sektorre Sozialeko Euskal Behatokiko taldea

Parte hartu duen Behatokiko lantaldea: Claudia Calderón, Lucía Merino, Iker Fernández eta Pedro Beitia.

Hirugarren Sektorre Sozialeko Euskal Behatokia EAEko Administrazio orokorreko tresna teknikoa da, eta gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen Sailaren mende dago. Behatokia arduratzen da informazioa eta ezagutza biltzeaz, sistematizatzeaz, eguneratzeaz eta sortzeaz. Era berean, zabaldu ere egiten du hirugarren sektorre sozialarekin eta bertan txertatutako erakunde eta sareekin zerikusia duten neurrian. Ekarpenen garapenean, Behatokia erakundeekin eta sareekin zuzenean ari da lanean.



Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeek eta sareek parte-hartzeari esker egin da txostena, eta, batez ere, Sareen Sarearen lankidetzari esker, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko entitateen sareak biltzen dituen elkarteak den aldetik.



Behatokiaren argitalpen guztiak kontsultatzeko eta dohainik deskargatzeko aukera dago Behatokiaren webgunean (www.3seuskadi.eus) eta <https://ikusmirak.eus/> webgunean.

Argitalpen horien bidez, hirugarren sektorre soziala hobetzen lagundu nahi dugu. Horregatik, ahalik eta gehien hedatzea eskertzen dugu eta haiek banatzea, kopiaatzea eta berrerabiltzea baimentzen dugu, baldin eta diru-irabazi asmorik gabe egiten bada eta egileak aitortzen badira.



AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	1
2.	ERREFERENTZIAZKO ESPARRUA	3
2.1.	Kontzeptu-esparrua.....	3
2.2.	Eskubide Sozialen Europako Zutabea	4
2.3.	Garapen Jasangarrirako Helburuak eta Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda.....	8
2.3.1.	Euskadi eta 2030 Agenda	12
2.4.	EHSSren definizioa eta ezaugarriak	14
3.	PLANTEAMENDUA ETA HELBURUAK	19
4.	METODOLOGIA ETA LAN PROZESUA	20
4.1	Metodologia	20
4.1.1	EHSSren datu diagnostikoen azterketa eta berrirakurketa	20
4.1.2.	Elkarriketa eta eztabaida-taldeak	21
4.2.	Lan-prozesua eta azterketa	21
5.	EHSS-REN ERANTZUNAK ESEZ-RI	23
6.	EHSS-REN ERANTZUNAK GJH-EI	33
7.	EHSS-REN GOGOETA INTERPRETAZIO ESPARRUEI BURUZ	42
7.1.	Zer harrera izaten ari dira ESEZ eta GJHak EHSSko erakundeetan?	42
7.2.	Nolakoa izaten ari da hurbildu, txertatu eta jarrera hartzeko prozesua?.....	44
7.3.	Zer alderdi ari dira hedapena eta inplementazioa oztopatzen?.....	46
7.4.	Zer aukera sortu ditzakete?	47
7.5.	Zer elementuk eragiten dute kezka?	49
7.6.	Zer ekintzak erraztu dezakete interpretazio-esparruak hedatzea?.....	51
8.	ONDORIO GISA: INTERPRETAZIO ESPARRUEN BALIOA	55
9.	ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	59

1. SARRERA

Egungo gizarteak gero eta konplexuagoak dira eta dimentsio askotako gizarte-aldaketak bizi dituzte: sozialak, ekonomikoak, kulturalak, etab. Egun bizi ditugun arazo eta gizarte-aldaketa batzuek irudika dezaketen etorkizunaren inguruko kezka dago. Arlo sozialean, erronka ugari daude eta batzuk nabariak dira duela urte batzuetatik; esate baterako, biztanleriaren zahartzea eta familia-egituren aldaketak. Beste batzuk, gizarte-arrakala digitalak edo nahi ez den bakardadea adibidez, bat-batean eta modu orokortuan geratu dira agerian Covid-19aren pandemiaren ondorioz.

Erronka eta gizarte-desafio horiek dakarten kezka dela eta, jasangarritasuna eta garapena bermatu ahal izateko konpromisoak lortzeko ahaleginak egiten ari dira. **Eskubide Sozialen Europako Zutabea** (aurrerantzean, ESEZ) eta **Garapen Jasangarriko Helburuak** (aurrerantzean, GJH) proposamen eta konpromiso zehatzak dakartzaten ekimenen adibide paradigmakoak dira. Geurera ekarrita, Eusko Jaurlaritzak erronka horietako batzuei aurre egiteko hedatu dituen estrategiak nabarmendu behar dira, hala nola erronka demografikoari lotutako GJHak eta Agenda 2030.

ESEZren eta GJHen helburua lan-merkatuen eta gizartearen aldaketa bizkorrei erantzutea da, baita beste erronka berri batzuei ere: adibidez, globalizazioak, iraultza digitalak, lan-ereduen aldaketek eta bilakaera demografiko zein sozialak eragindako erronkei. Testuinguru horretan, **Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko** (aurrerantzean, EHSS) **erakundeek** ez dihardute joera, aldaketa eta erronka sozialetatik urruti. Aitzitik, zeregin garrantzitsua dute arrisku- eta/edo zaugarritasun-egoeran dauden beharrei erantzuteko orduan. Halaber, desparekotasun sozialak murrizteko lan egiten dute eta gizarte kohesionatuak eraikitzeke lanean laguntzen dute elkarriketa zibila bultzatuz, besteak beste.

EHSSko erakundeek zaugarritasun-egoera berezian edo arriskuan dauden pertsonen, babesgabeen, mendekotasuna dutenen, bazterkerian dauden edo desgaitasuna dutenen errealitate eta behar sozialei erantzuten diete beren jardueraren bitartez, bai zerbitzuak eskainiz, bai eragin sozialarekin lotura duten bestelako funtzio sozialak eginez. Hala, gizarte-erronkei ere erantzuten diete, esparru zabalagoan.

Errealitatea aldakorra den testuinguru honetan, zeinean askotariko arazoak eta egoera sozialak sortzen diren, EHSSko erakundeak errealitate horrekin konektatzen eta jarduera egokitu eta malgutzen saiatzen dira, egoera eta behar berriei erantzuteko. Moldagarritasun hori pandemian geratu zen agerian, erakundeak testuingurura egokitu zirenean beren jarduera berrantolatuz, hartzaileei erantzunak eskaintzen jarraitzeko. Zehazki, COVID-19ak EHSSko erakundeetan izandako eraginari buruzko txosten baten arabera (2020), erakundeen % 83,2k adierazi zuen zerbitzu edo jarduerak aldatu edo birbideratu behar izan zituztela 2020ko apirilean, eta % 46,2k aditzera eman zuen hartzaileek zerbitzuei eskatzen zieten aldatu egin zela.

Errealitatearekin konektaturik egotea gakoetako bat da EHSSren liburu zurian (2020) aipatzen diren erronken artean: erakundeek errealitatetik hurbil jarraitzeko lan egitea eta, hartara, errealitatearen irakurketa partekatua sustatzea, behar berriak detektatzea eta erakundeek,

sareek eta beste espazio batzuek alternatibak sortzea erronka sozialei aurre egiteko. Alde horretatik, sektorearen dibertsitate oparoa hurbiltasun-elementutzat jotzen da errealitate sozialari, lurraldeari eta jardueraren hartzaileei dagokienez. Sektoreak egungo testuinguru sozialean eduki behar duen rolarekin lotutako beste erronka bat dago: jarrera garrantzitsu bat bilatzea eragile sozial gisa, eragina izateko eta eraldaketa sozialeko prozesuak sustatzeko gero eta konplexuagoa den mundu honetan. Izan ere, txosteneko datuen artean azpimarratzekoa da erakundeen % 45,5ek uste duela sektoreak lider-rola hartu behar duela gizarte-eredu berriak eraikitzeke eta politika publiko berriak sortzeko lanean.

Ikerlan-proiektu honek **interpretazio-esparru** alternatiboak eskaintzea du xede, hirugarren sektore soziala deskribatzeko erabili ohi direnetatik at. Modu horretan, **EHSSko erakundeek lana erronka sozialekin zerikusia duten beste gako batzuetatik ulertu** nahi da. Ildo horretan, txostenean ikusiko den moduan, ESEZren eta GJHen interpretazio-esparru alternatiboek bestelako egitura edo eskema narratiboa eskaintzen dute, sektoreko diagnostikoetan eskuarki erabiltzen direnen aldean. Horien bitartez, erakundeek jarduera erakutsi nahi da erantzuten dien eta barne hartzen duten erronka sozialekin konektatuta. Halarik ere, txostenak helburu hauek ditu:

1. Interpretazio-esparru alternatiboak eskaintzea EHSSko erakundeek lana ulertzeko, dagozkion erronka sozialak gogoan. Horretarako, ESEZ eta GJHak hartuko dira erreferentziatzat.
2. Erakundeek egiten duten jarduera ESEZren eta GJHen ikuspegitik aztertzea.
3. Hizpide ditugun interpretazio-esparruek eskaintzen dituzten aukerei buruz batera hausnartzea eta, besteak beste, ibilbideak, zailtasunak eta aukerak identifikatzea.

Horrela jokatzuz, erronka horiei erantzuteko EHSSk egiten duen ekarpena ikusgarri egin nahi da, bai eta eraldaketa sozialerako eragile adierazgarri gisa duen rola erakutsi eta haren identitate partekatua eta jarrera indartu ere, beste interpretazio-gako batzuetatik.

Txostenaren egitura dela eta, erreferentziazko esparrua aurkezten da lehenik. Horren ostean, proiektuaren ezaugarriak, planteamendua eta helburuak jaso dira, eta metodologia ere bai. Geroago, EHSSren jardueraren azterketa dator, baliatu diren bi interpretazio-esparruetatik abiatuta, hots, ESEZtik eta GJHetatik. Hurrengo kapituluan, EHSSren barruan ESEZri eta GJHei egindako harrerari buruzko gogoeta jaso da: zer prozesu gertatzen ari diren, zer zailtasun sortu diren, zer aukera sortu daitezkeen, zer arrisku identifikatu diren eta, azkenik, esparru horiek hedatzea erraztu dezaketen ekintza batzuk. Azken kapituluan, ESEZren eta GJHen interpretazio-esparruen elementu baliotsu nagusiak laburbiltzeko ahalegina egiten da ondorio gisa.

2. ERREFERENTZIAZKO ESPARRUA

Txostenaren erreferentziazko gakoetako batzuk aurreratu dira jada. Haatik, zenbait kontzeptu argitzea, azterketaren oinarri diren interpretazio-esparruak xehetasun gehiagorekin azaltzea eta EHSSren ezaugarrien berri ematea komeni da.

2.1. Kontzeptu-esparrua

Aipatu den bezala, eraldaketa sozial ugarik zeharkatzen dute egungo gizartearen konplexutasuna. Eraldaketa nabariak gertatu dira arazo, aldaketa edo arrisku sozialen *mapan*, desparekotasuna eragiten duten faktore berriak agertu direlako funtsean (Moreno, 2017). Hainbat eragilek parte hartzen dute mapa horretan. Horien artean, erakunde publikoak eta Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak aipatzekoak dira, erantzunak sortu nahi dituztenak arrisku sozialen estaldura gisa.

Erronka sozialaren kontzeptua eta, lehen, **arrisku sozialarena** erabilgarriak izan dira azken hamarkadetako eraldaketa sozialak ulertzeko. Ochoa Leónek (2014) dioen bezalaxe, arriskuen identifikazioa gizarte baten eraikuntza sozial bat da, eta gizartean aurre egingo zaien arrisku horiek definitzeko ariketa egin behar da, baita horretarako mekanismo espezifikoak definitzekoa ere. Hala, politika sozialak ulertzeko modu bat arriskuak kudeatzeko mekanismo gisa ulertzea izan daiteke (Esping-Andersen, 1999).

Soziologian, hainbat egile azalpen-esparruak ematen saiatu dira, **eraldaketa sozialak** ulertu eta aztertzeko aukera ematen dutenak. Beckek (1998), arriskuaren gizartearen bere kontzeptualizazioan, hartan eztabaida publikoa agertzen dela adierazten du, zehazki, arriskuak sortu eta banatzeko moduari buruzkoa. Horrenbestez, Beckek modernitate pentsakor deritzona sortzen da, eta, prozesu horren bidez, gizarteak berak sortutako arriskuari aurre egiten dio. Bestalde, Luhmannek (1998) modernitatean kokatzen ditu arrisku sozialak: erabakiak ziurgabetasunaren pean hartzeko egoeran eta ekintzek etorkizuna definitzen duten eragin jakin batzuk sortzen dituztela ohartzeko egoeran. Ildo horretan, arriskua honela definitzen du: etorkizuna arazo gisa planteatzea.

Arrisku sozialen hainbat ezaugarri nabarmendu ohi dira; adibidez, giza ekintzaren ondorio direla eta eskuarki ezin dela kalkulatu zer kalte ekarriko duen edo nolako munta izango duen kalteak. Gainera, arriskuen existentzia sozialak arriskuen **pertzepzioarekin** eta **aitorpenarekin** lotura estua du (Ochoa León, 2014). Hortaz, halakotzat joko diren arriskuei eta abiaraziko diren ekintzei buruzko erabaki sozial bat dago. Horri dagokionez, ESEZk eta GJHeK erronka edo arrisku sozialak aitortzea dakarte, eta abiarazi beharreko ekintzei buruzko erabakiak hartzea da ondorioa.

Ziurgabetasuna nagusi den esparru honetan, gizarteak nola funtziona dezakeen eta nola antola daitekeen kezka dago, eta arriskuen kudeaketak nolabaiteko kontrola dakar horren gainean, eta ongi definitutako muga maneiagarrien baitan geratzea ere ekartzen du. Izan ere, Luhmannen ustetan, prebentzioa arriskuei aurre egiteko modu bat da, gertatzeko probabilitatea murriztea

edo kaltearen munta txikiagotzea bilatzen duena. Hartara, ESEZ eta GJHak ekintzak biltzen dituzten ariketatzat uler daitezke, kontuan izanik ekintza horiek martxan jartzen direla arriskuak ez sortzeko edo sortu dezaketen kaltea txikiagotzeko (Ochoa León, 2014).

Bestalde, txosten honetan ESEZ eta GJHak interpretazio-esparru gisa ulertzen direla adierazi da. Horien bidez, erronka sozialekin lotuta dauden gakoetatik uler daiteke erakunde sozialen lana. **Esparruaren (frame)** kontzeptua Goffmanek (1974) zabaldu zuen hasiera batean, interakzio-egoerak interpretatu eta antolatzen dituzten eskema kognitiboez aritzeko. Bestela esanda, esparru batek zer interakzio-motaren aurrean gauden (gatazka bat, eztabaida bat, etab.) adierazten du, eta, egoera horretan, zer den garrantzitsua, zer espero daitekeen, nola jokatu behar dugun...

Horren harira, esparrua honako hau da: “‘Kanpoko mundua’ sinplifikatzen eta laburbiltzen duen eskema bat, norbanako bakoitzaren oraingo edo iraganeko ingurunean izandako objektuak, egoerak, gertaerak, esperientziak eta ekintzak hautatuz adierazi eta kodetzen baititu” (Snow eta Benford, 1992: 137). Horiek horrela, esparru batek zentzua ematen dio egoera bati, gai bati, objektu bati, subjektu bati, etab. Izan ere, egoera, gai, objektu, subjektu eta abarren alderdi jakin batzuk *hautatu* eta lotu egiten ditu. **Esparru batean kokatzea**, hortaz, gai bat eta horren gaineko elementu jakin batzuk lotzeko jardura da, beste alderdi batzuk baztertu edo garrantziaren bigarren mailan kokatzen diren artean.

Esparru bat neurri txikiagoan edo handiagoan hedatzea ulertzeko aldagai garrantzitsu bat izaten da esparru horren ondoriozko programak edo ekintza-ereduak ba ote dauden alde aurretik, eta jada probatu ote diren. Eredu instituzionalak prestatzea lagungarri izan daiteke (1) egoera edo gai batek esan nahi duena hobeto ulertzeko; (2) aldi berean, erakunde, programa eta, oro har, ekintza-eredu berrien jatorri diren esparru berrien erabilgarritasuna erakusten dute; eta (3) zentzu-egituren oinarritzko funtzio bat betetzen dute, hau da, eguneroko ekintza bideratzeko gauza izatea (Anderson, 2014; Ben-Josef Hirsch, 2014; Swidler, 1986).

Ikuspuntu horretatik, ESEZren eta GJHen interpretazio-esparruak EBk eta NBEk hurrenez hurren bultzatutako ekintza-ereduetan gauzatu dira, eta gai bati zentzua emateko aukera ematen dute: erronka sozialak. Hala, erronka horiek elementu eta apustu zehatzekin lotzen dira.

2.2. Eskubide Sozialen Europako Zutabea

Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak batera sinatu zuten ESEZ 2017ko azaroaren 17an, bidezko enplegu eta hazkunderako gailur soziala Suedian egin zenean. Zehatz-mehatz, “Lan-merkatuen eta XXI. mendeko Europako ongizate-sistemen funtzionamendua ona eta bidezkoa izateko oinarritzko printzipioak eta eskubideak” finkatu ziren.

Eskubide sozialak sendotzeko helburua ezarri du **ESEZk**, pertsonen bizitzan eragin positiboa lortzeko epe labur eta ertainean, Europako testuinguruan. Europar Batasuneko estatu kideek honako lehentasun hau finkatu zuten: segurtasun ekonomiko eta sozialik ezari aurre egitea eta etorkizun ekonomiko egonkorra ezartzea, kalitate oneko bizimodua babestu ez ezik, gazteei

aukera hobeak ere eskaintzeko. Horregatik guztiagatik, konpromiso bat sortu zen hazkunde jasangarriko, aurrerabide ekonomiko sozialeko eta kohesio zein konbergentziako printzipioak oinarritzat hartuta, bazterkeria sozialari, pobrezia, langabezia eta diskriminazioari aurre egin eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko, besteak beste.

Helburu nagusia Europar Batasunean egindako lana osatzea zen, lan horren baitan honako hauek daudela gogoan izanik: Europako gutun soziala, oinarritzko eskubideen gutuna, Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko tratatua eta Europako estrategia 2020¹. Halaber, helburu horren baitan dago alderdi hauekin guztiekin lotuta dauden funtsezko elementuak identifikatzea: lan-baldintzak, laneko osasuna eta segurtasuna, gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasuna eta, oro har, baldintza sozialak eta babes sozialeko sistemen sarbidea. Halatan, garatu beharreko ESEZn Europako gizartearen errealitate aldakorrak eta lana aintzakotzat hartu behar ziren, eta eurogunean konbergentzia berritua lortzeko gida gisa balio behar zuen. Ezinbestean nabarmendu behar dira hura onartzeko eta erantzun tradizionala birformulatu edo, behintzat, bestelako ingurune sozioekonomiko batera egokitzeko **hiru arrazoi nagusiak**.

Lehenik eta behin, Europako integrazio-prozesuan ikuspegi sozialak izandako garrantziaren uste osoak eta oso merkatu-ekonomia sozial lehiakor baten bilaketak definitu zuten prozesua. Bigarrenik, bi beharren emaitza zen: krisia etorkizunaren ikuspegiarekin gainditzea, batetik, eta batasun ekonomiko eta monetario sakonago eta bidezkoago baterantz aurrera egitea, bestetik, produktibitatea bultzatzeko, kohesio soziala indartzeko eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeko. Halatan, ongi funtzionatzen duten lan-merkatua eta ongizate-sistema lortuko lirateke. Hirugarrenik, babes sozialeko eta lan-babeseko erakundeak bestelako ingurune sozioekonomiko batera eta Europako gizartearen eraldaketak eragina duen testuinguru batera egokitzeko beharra definitu zen. Izan ere, eraldaketa horien ezaugarriak hauek dira: biztanleriaren mailaz mailako zahartzea, bizi-itzaropena luzatzea, ekonomiaren digitalizazioa, lan-sistemen eraldaketa, lan-harremanen aldaketa... Horregatik guztiagatik, elkarriketa sozialak funtsezko zeregina du hazkunde jasangarri eta inklusiboan eta eskubide sozialak sendotzeko lanean (Comisión Europea, 2017).

Lan-merkatuen eta XXI. mendeko Europako ongizate-sistemen funtzionamendua ona eta bidezkoa izateko oinarritzko printzipioak eta eskubideak dakartza ESEZk. EBko eskubideetako batzuk berrestez gain, printzipio berriak dakartza, aldaketa ekonomiko, teknologiko eta sozialen ondoriozko erronkak jorratzen dituztenak (Comisión Europea, 2017). Printzipio eta eskubide horien baitan honako arlo hauek daude: enplegua, babes soziala, inklusio soziala, hezkuntza eta aukera-berdintasuna. Zehatzago adierazteko, **hiru kapitulutan** antolatu da:

I. kapituluak, *Aukera-berdintasuna eta lan-merkatura sartzeko berdintasunak*, lau printzipio biltzen ditu:

- ESEZ 1: hezkuntza, trebakuntza eta ikaskuntza jarraitua.
- ESEZ 2: Genero-berdintasuna.
- ESEZ 3: Aukera-berdintasuna.
- ESEZ 4: enplegurako laguntza aktiboa.

¹ Dokumentu horien laburpen bat dago hemen:

https://www.eapn.es/ARCHIVO/documentos/documentos/1577702829_pilar-europeo_vfinal_web.pdf.


II. kapituluak *Lan-baldintza bidezkoak* du izena, eta bosgarrenetik hamargarren printzipiora artekoak jasotzen dira hartan:

- ESEZ 5: enplegu segurua eta moldagarria.
- ESEZ 6: soldatak.
- ESEZ 7: informazioa lan-baldintzei buruz eta babesari buruz, kaleratuta izanez gero.
- ESEZ 8: elkarriketa soziala eta langileen partaidetza.
- ESEZ 9: bizitza pertsonalaren eta pribatuaren arteko oreka.
- ESEZ 10: laneko ingurune osasungarria, segurua eta egokitua, eta datuen babesa.

III. kapituluaren izenburua *Babesa eta inklusioa* da, eta hamaikagarren printzipiotik hogeigarrenera artekoak biltzen ditu:

- ESEZ 11: haurrei laguntza eta babesa.
- ESEZ 12: babes soziala.
- ESEZ 13: prestazioak langabeziagatik.
- ESEZ 14: gutxieneko errenta.
- ESEZ 15: pentsioak eta zahartzaroko prestazioak.
- ESEZ 16: osasungintza.
- ESEZ 17: desgaitasuna dutenen inklusioa.
- ESEZ 18: epe luzeko zainketak.
- ESEZ 19: etxebizitza eta etxerik ez dutenentzako laguntza.
- ESEZ 20: oinarritzko zerbitzuak eskuratzea,

1. irudia. *Eskubide Sozialen Europako Zutabearen laburpena.*



Iturria: Europako Batzordea (2022).²

² Infografia jatorrizko hizkuntzan aurkeztu da, iturri ofizialak euskarazko bertsiorik eskaini ez duelako.

Nabarmentzekoa da ezen, printzipioek eta ondoriozko eskubideek indar juridiko loteslea eduki dezaten, neurri espezifikoak edo legeria behar direla maila egokian, EBko herritarrei zein legezko bizilekua duten hirugarren herrialdeetako nazionalai dagozkienak. Bestalde, printzipio batean langilean jorratzen direnean, adibidez, enplegua duten pertsona guztiei dagokie, lan-egoera eta lanpostuaren modalitatea zein iraupena edozein direla ere (Comisión Europea, 2017)

ESEZren onarpenak balioespen positiboa merezi du, Europako integrazio-proiektuan alderdi soziala sendotzeko beharra mahai ganean jartzea erraztu duelako, 2008ko krisi ekonomikoaren ondorio larrien ostean eta, horrenbestez, austeritatean oinarritutako politiken ostean, murrizketak eta eskubide sozialen malgutzea kontuan izanik (Casado Casado, 2019) Alabaina, azpimarratu behar da indar juridiko loteslea ez duten tresnetan jasota dagoela ESEZ. Beraz, zalantzak daude zer ekarpen zehatz ekarri ote ditzakeen Europar Batasunaren baitan. Gainera, ikuspegi juridikotik begiratuta, ESEZ onartzeak ez dakar eskubide gehiago edo eskubide berriak txertatzea, eta ez du aldatzen Europar Batasunak eta estatu kideek eremu horretan duten eskumen-banaketa. Dena den, jada bazeuden eskubideak berrestea eragin du, eta interpretazio-hobekuntzak egin dira (Casado Casado, 2019).

Esan bezala, ESEZren mugarik handiena indar juridiko loteslerik eza da. Halaber, ESEZren izaera dela medio, printzipioak eta eskubideak ez dira zuzenean aplikagarri. Halatan, ekintza espezifikoetan edo dagokion mailako arauetan islatzea ezinbestekoa da, horiek zehaztuko dute eta zeinen eraginkorra izango den benetan. Hari horretatik, ESEZ zehaztu eta aplikatzeko, **Eskubide Sozialen Europako Zutabearen Ekintza Planak**³ oso zeregin garrantzitsua du. Zutabe sozialaren printzipioak aplikatzeko Batzordeak egiten duen ekarpena jasotzen du, Europako buruen eta Parlamentuaren eskaerekin bat etorritik (Comisión Europea, 2017).

Ekintza Planaren metodologiak eskala handiko kontsulta bat du oinarri. Besteak beste, herritarren, gizarte zibileko erakundeen, erakunde publikoen eta EBko erakundeen mila ekarpen baino gehiago jaso ziren. Geroago, EBren ekintza-multzo bat finkatu zen, eta Batzordeak egingo zituela hitzeman zuen. Ildo horretan, 2030erako erdietsi behar diren **hiru helburu** finkatu dira (Comisión Europea, 2017):

- 1) 20 urtetik 64 urtera bitarteko herritarren % 78k gutxienez enplegua eduki behar du;
- 2) helduen % 60k gutxienez trebakuntza-jardueretan parte hartu behar du urtero; eta
- 3) pobrezia-arriskuan edo bazterkeria sozialaren arriskuan daudenen kopuruak gutxienez 15 milioi gutxiago izan behar du 2030erako.

Aurrerabidearen jarraipena egin eta ESEZk Europar Batasuneko herrialde bakoitzean duen inpaktua neurtu ahal izateko, herrialdez herrialdeko inplementazioa ezagutzeko adierazleak⁴ finkatu ziren. Bestalde, ESEZren bosgarren urteurrena Enpleguaren eta Gizarte Eskubideen Europako Foroan ospatu zen, eta, hartan, aurrerabideen balantzea egin zen eta datorren horretan jarri zen arreta. Batzordeak 130 ekimen baino gehiago aurkeztu zituen ESEZ estatu

³ Ikusi Eskubide Sozialen Europako Zutabearen Ekintza Plana hemen: https://eur-lex.europa.eu/resource.html?uri=cellar:b7c08d86-7cd5-11eb-9ac9-01aa75ed71a1.0004.02/DOC_1yformat=PDF

⁴ ESEZren jarraipen- eta aurrerabide-adierazleak ikusteko, jo hona: <https://op.europa.eu/webpub/empl/european-pillar-of-social-rights/es/#annex2>.

kideetan martxan jartzeko eta Europa soziala bidezkoa eta inklusiboa izateko eta aukeraz beteta egoteko. Hona hemen ESEZ martxan jartzeko egin diren ekimenetako batzuk⁵:

II. kapitulua: aukera-berdintasuna eta lan-merkatura sartzeko berdintasuna	
Gaitasunen aldeko ituna	Arrazakeriaren aurkako plana 2020-2025
Genero-berdintasunerako Europako estrategia	LGBTBIQ+ pertsonen berdintasunerako estrategia
Ordainsarien gardentasunari buruzko proposamena	Ijitoen berdintasunerako, inklusiorako eta partaidetzarako EBko esparru estrategikoa
Genero-orekari buruzko arauak administrazio-kontseiluetan	Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko estrategia 2021-2030, eta irisgarritasunari buruzko Europako legea
Familia-bizitza eta bizitza profesionala uztartzeari buruzko zuzentaraua	Gazteen enpleguan laguntzea

II. kapitulua: lan-baldintza bidezkoak	
Osasunari eta laneko segurtasunari buruzko EBko esparru estrategikoa 2021-2027	Plataforma digitaletan dihardutenen lan-baldintzak hobetzeko proposamena

III. kapitulua: babes soziala	
Inklusio aktiboa bilatzen duen gutxieneko errentari buruzko gomendio-proposamena	Etxegabetasunari aurre egiteko Europako plataforma
Zainketen Europako estrategia	Europako haurren bermea

Estatuan, ESEZren implementazioa autonomia-erkidegoek gizarte-politiketan eta -zerbitzuetan dituzten eskumenen mendean dago neurri handian. Jakina, Estatuko Administrazio Orokorrarekin estu koordinaturik jardun behar da, eta azken horrek bultzatu, babestu, koordinazioa erraztu eta aritu egin behar du eskumen osoak edo partekatuak dituen arloetan. ESEZn zehazten diren eskubideak bermatzeko azken erantzukizuna estatuarena da. Halarik ere, entitate sozialek eta beste eragile batzuek funtsezko zeregina dute pertsonen informazioa eman, sensibilizatu, jarraipena egin eta laguntzeko garaian, beren eskubideak gauzatu ditzaten. Alde horretatik, hirugarren sektore soziala eragile garrantzitsua da prozesu horretan, eta egiteko aktiboa eduki nahi du lehenago deskribatu diren zereginetan (Malgesini eta Sánchez, 2019).

Amaitzeko, aipatzekoa da ESEZ gauzatzeko finantzazioa duela Europar Batasunak, bereziki Europako Gizarte Funtza Plusen (EGF+) esparruan. Horren xedea da inklusio soziala sustatu, pobrezia aurre egin eta pertsonetan inbertitzen duten proiektuak finantzatzea.

2.3. Garapen Jasangarrirako Helburuak eta Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda

GJHak kokatzen diren 2030 Agenda NBeko estatu kideek mundu-mailan egindako dei baten ondorioz sortu zen. Zehazki, deiak neurri jakin batzuk hartzea zuen helburu, pobrezia desagerrarazi, planeta babestu, herritarrek beren eskubideak eraginkortasunez gauzatu ditzaketela bermatu eta, oro har, planetak aurrez aurre dituen egungo erronkei erantzuteko. 2030 Agenda gobernu, gizarte zibil, eremu akademiko eta sektore pribatuarentzako gonbidapen

⁵ Europako ekimenei buruzko informazio gehiago dago hemen: <https://cde.ugr.es/index.php/union-europea/noticias-ue/1495-el-pilar-europeo-de-derechos-sociales-cinco-anos-despues-de-principios-a-acciones-concretas-por-una-europa-social-fuerte>.

bat da, GJHak erdiesteko lan egin dezaten. Horregatik, asmo handiko agenda bat da, eta gizarteko eta estatuko sektore guztiek parte hartu behar dute egitasmoa ezarri ahal izateko.

2000ko irailean, 189 herrialdetako buruak NBERen egoitza nagusian bildu ziren, NBERen Batzar Nagusiaren 55. saioan, milurtekoko adierazpena sinatu asmoz. Azkenean, dokumentu historiko bihurtu zen, eta, horren bidez, 2015a baino lehen **zortzi helburu** kuantifikagarri erdiesteko konpromisoa hartu zuten; besteak beste, muturreko pobrezia murriztea, genero-berdintasuna sustatzea eta haurren heriotza-tasa murriztea (SDGF, 2022). Horren eraginez, **Milurtekoko Garapen Helburuak** sortu ziren (aurrerantzean, MGH), ardatz inspiratzaile bilakatu zirenak NBERen sistema osatzen duten erakundeek, zenbait herrialdetako gobernuen eta beste erakunde pribatu batzuen ekintza espezifikoetarako. Hala, muturreko pobrezia desagerrarazi eta/edo murrizteko konpromisoa ekarri zuen mundu-mailan, nazioarteko lankidetzak behar zuena. Tokian-tokian, berriz, lankidetzak behar zuen sektore publikoaren eta pribatuaren artean (Villamil Jiménez eta Romero Prada, 2011).

2. irudia. Milurtekoko Garapen Helburuen laburpena.



Iturria: Google irudiak (2023)⁶

Zortzi helburuek gizakion oinarritzko beharrak eta eskubideak adierazten zituzten, eta ongizatearen berme bilakatu ziren. Jatorria, klase soziala eta sexua edozein izanik ere, norbanako bakoitzak muturreko pobreziatik eta gosetik urrun bizi behar du; kalitate oneko enplegua lortu, osasuntsu bizi eta bere burua garatzeko aukera eman behar dion kalitate oneko hezkuntza izan behar du eskura, gizonek eta emakumeek aukera berak dituzten gizarte batean; eta ingurumen-jasangarritasuna sustatu behar du oraingo eta etorkizuneko belaunaldien bizi-kalitatea ziurtatzeko (Villamil Jiménez eta Romero Prada, 2011).

MGHei argi eta garbi aitortu zuten nolako sinergia dagoen hazkunde ekonomikoaren, pobrezia murriztearen eta garapen jasangarriaren artean. Gainera, kontuan hartzen dute zertan oinarritzen den garapena: gobernantza demokratikoan, zuzenbide-estatuan, giza eskubideen errespetuan, bakean eta segurtasunean (SDGF, 2022). Horren harira, MGHei iraultzaileak izan ziren hein batean, mundu-mailako akordio bat lortzeko diskurtso erkidea eskaini baitzuten. Hala, helburu errealista bihurtu ziren, komunikatzen errazak, eta kuantifikatu eta ebaluatzeko mekanismo argi batekin. MGHei lortu zen aurrerabidea nabaria izan zen: 2015ean, munduak


⁶ Infografía jatorrizko hizkuntzan aurkeztu da, iturri ofizialak euskarazko bertsiorik eskaini ez duelako.

lehen helburua beteta zuen, alegia, muturreko pobrezia eta gosearen munduko tasak erdira murriztea. Haatik, helburuak ez ziren modu ekitatiboan erdietsi (SDGF, 2022).

Rio+20 biltzarra 2012an egin zen, eta MGHeK eragindako bulkadarekin jarraitu ahal izateko helburu-multzo bat sustatzeko prozesua abiarazi zuten bertan. Geroago, 2015eko irailean, hiru urte baino gehiago iraun zuen mundu-mailako kontsulta-prozesu baten ostean, NBEren Batzar Nagusiak Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda onartu zuen, NBEko 193 estatu kideen adostasunez. Ekintza-plan unibertsal, integral eta eraldatzaile bat da, giza garapenari laguntzera bideratu dena eta gizartearen, ekonomian eta ingurumenean ekintza jasangarriak eginez gauzatuko dena (SDGF, 2022).

Helburuak eta xedeak hiru urte baino gehiago luzatu den prozesu baten emaitza dira, eta kontsulta publikoetan eta gizartearekiko elkarreraginean (sektorerik zaurgarrienekin bereziki) oinarritu da. **17 GJHeK eta 169 xedeek** multzo oso eta zatiezin bat osatzen dute. Irismena mundu-mailakoa da, eta aplikazioa ere unibertsala. Helburuak kontratu sozialeko kultura bat bultzatzeko aukera bat dira, jasangarritasunerako eta elkartasunerako konpromisoak oinarritzat hartuta.

3. irudia. GJHen laburpena



Iturria: Google irudiak (2023)

Era horretan, GJHeK MGHen lekua hartu zuten, eta zenbait alde daude haien artean. UNICEFek dioenez (2022), GJHeK garapen-agendan egindako aldaketa nagusiak **bost multzotan** laburbil daitezke:

- 1. Jasangarritasuna:** ibilbide-orri berrian, azken 15 urteotan bigarren mailan utzitako gai bat erdigunean ipini zen, eta orduko ereduja jasanezina zela agerian utzi zen.
- 2. Ekitatea:** MGHaK batezbesteko nazionaletan oinarrituta zeuden, eta ez ziren arlo zaurgarri eta urrutienak kontuan hartzen. Horregatik, GJHeK parametro gehiago dituzte, landu behar den errealitatea hobeto islatzeko.

3. **Unibertsaltasuna:** MGHeK xedeak landu zituzten garapen bidean zeuden herrialdeetan soilik. Aitzitik, GJHeK finkatu da ezin dela garapenaz hitz egin arazo guztiak elkarri loturik daudela eta herrialde guztietan heldu behar zaiela onartzen ez bada.
4. **Konpromisoa:** MGHeK ez bezala, GJHeK munduko herrialde guztien konpromisoa behar da estreinakoz. Horrek esan nahi du gobernuak 2030 Agenda aplikatu beharko dutela barne-politikan.
5. **Irismena:** zortzi MGH ziren, baina 17 GJH, 169 xederekin.

4. irudia. MGHen eta GJHen konparazioa.



Iturria: Google irudiak (2023)⁷

GJHeK xede jakin batzuk planteatu dituzte 2030erako, oinarri hauekin: pobrezia desagerraraztea; hezkuntza, enplegua eta informazioa lortzeko aukerak hobetzea; osasuna eta etxebizitza hobetzea; eta desparekotasunak murriztea kontsumo, ekoizpen eta elikadura jasangarrien bidez. Herrialde edo gobernu bakoitzak erabaki dezake nola txertatu 2030 Agenda bere plangintza-prozesuetan, politikan eta estrategia nazionaletan. Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak (FAO, 2019) azpimarratzen du GJHak kontratu sozialaren berritzea edukia emateko aukera historiko eta unibertsala direla krisian dagoen mundu aldakor honetan.

2030 Agendan eta GJHetan nabarmendu behar da ezen, ekitatearen printzipioa txertatzeari esker, herrialdeek beren errealitate, gaitasun eta garapen-mailetatik abiatuta lan egin dezaketela. Era horretan, politika eta lehentasun nazionalak errespetatua errazten da.

⁷ Infografía jatorrizko hizkuntzan aurkeztu da, iturri ofizialak euskarazko bertsiorik eskaini ez duelako.

2.3.1. Euskadi eta 2030 Agenda

Euskadiren kasuan, bertako erakunde guztiek lehentasun osoa ematen diote munduko eta tokian tokiko eraldaketa- eta elkartasun-konpromiso horri.

Izan ere, giza garapen jasangarria ardatz nagusien artean kokatu zuen Eusko Jaurlaritzak bere XI. legegintzaldiko programan, zeina 2017ko otsailean onartu zen. Halatan, horixe izan zen Eusko Jaurlaritzak 2030 Agendarekin duen konpromisoaren abiapuntua. Hasieran, **Euskadi Basque Country 2030 Agenda** onartu zen, 2016-2030 aldirako. Hartan, GJHak eta xedeak Eusko Jaurlaritzak hartutako konpromisoekin lotu ziren. Aldi berean, eragile ugari (enpresak, EHSSko sareak eta entitateak, eta administrazio publikoak) 2030 Agenda beren estrategietan sartzen hasi ziren.

2030 Agendak erakunde guztietako maila guztiak interpelatzen ditu, eta arlo guztietan: 2030 Agendak dakartzan erronken inguruko lehentasun partekatuen esparru bat txertatu behar da Euskadiko politketan. Era horretan, partaidetza publiko, pribatu eta sozialeko mekanismoetan aurrera egiten joateko balio izan zuten aliantza-ereduak eta gobernantza-egiturak esperimentatzen hasi ziren Euskadin.

2030 Agendaren lehentasunen euskal programa eta GJHen lokalizaziorako euskal konpromisoaren eredua

Pandemiak eragindako krisi-testuinguruaren erdi-erdian eta Eusko Jaurlaritzaren XII. legegintzaldiaren hasieran, **2030 Agendaren lehentasunen euskal programa**⁸ abiarazi zen. 2030 Agendarekin **kontratu sozialaren kultura** sustatzea zuen misio, kohesio sozial handiagoa lortzeko, bakea, justizia eta jasangarritasuna lortzeko nazioarteko ahaleginetan laguntzen eta partaide izaten jarraitzeko eta, orobat, Agendaren gaineko arduraren ahalegin partekatuarekin jarraitzeko. 2030 Agenda kontratu sozialak honako helburu nagusi hauek ditu, besteak beste: dibulgazio soziala eta herritarren inplikazioa, koordinazioa eta elkarlaneko gobernantza, lerrokatzea, garapena eta ebaluazioa, eta trakzio-konpromisoak zein proiektu adierazgarriak garatzea.

2030 Agendaren lehentasunen euskal programak ere NBEk 2019an egindako ekintzaren hamarkadaren deia⁹ erantzun nahi izan zion, 2030 Agendarekin bat egiteko aurreko fasetik **fase proaktibora** igarotzeko.

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak **Now2030** proposamena abiarazi zuen 2023an, GJHen eta xedeen mundu-mailako garapena eta betetzea nahikoa ez zirelako kezkatuta eta, halaber, 2030 Agendaren eta GJHen gaineko ezagutza soziala txikia delako Euskadin ere. Horren ondorio izan zen NBEri aurkeztutako **Now2030 Basque Country** dokumentua. **GJHen lokalizaziorako euskal konpromisoaren eredua**¹⁰. Lokalizazioa instituzionalizazio, sozializazio eta

⁸ Informazio gehiago nahi izanez gero, jo hona: <https://www.euskadi.eus/2030-agendaren-lehentasunen-euskal-programa/web01-a2lehet/eu/>.

⁹ Informazio gehiago nahi izanez gero, jo hona: <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/decade-of-action/>.

¹⁰ Informazio gehiago nahi izanez gero, jo hona: <https://www.euskadi.eus/2030-agenda/web01-a2lehet/eu/>.

pertsonalizazio handiagoetarako konpromiso gisa ulertzen da, herritarren inplikazio handiagoarekin.

GJHak lokalizatzea sustatzeko ariketa horretan, NBEren 2030eko tokiko koalizioaren idazkaritzaren munduko egoitza 2022an Bilbon kokatzea urrats bat izan zen, GJHen lokalizazioan laguntzeko mundu osoko tokiko eta eskualdeetako erakunde publikoetatik.

Bestalde, 2030 Agendaren lehentasunen euskal programaren elementu nabarmenetako bat **Trantsizio Sozialerako eta 2030 Agendarako Eragile Anitzeko Foroa**¹¹ sortzea izan da, sailen arteko eta erakundeen arteko gobernantza-mekanismoak finkatu eta elkarlan zein partaidetza publikoa, pribatua eta soziala errazteko asmoz. Foro horretan, Eusko Jaurlaritzako sailen, hiru foru-aldundien, EUDElen (Euskadiko Udalen Elkarte) eta Euskadiko hiru hiriburuetako udalen topaguneak eratzen dira, baita elkarlan publiko-pribatua ordezkatzeko duten entitateekin ere. Adibidez, Sareen Sareak eta EHSSko entitateek parte hartzen dute. Foroaren helburua GJHak bultzatzeko lanean diharduten erakunde eta entitate guztiek bateratze-lan eraginkorra egiteko aukera ematea da.

Foroaz gain, gobernantza bultzatzeko garrantzitsua izan da **GJHen aldeko Euskal Aliantza**¹² eratzea eta **2030 Agenda Euskadi Kontratu Sozial baterako adierazpena** egitea, zeinean Euskadiko 80 eragile sozial baino gehiago bildurik dauden. Erakundeen arteko elkarlana eta erakunde publikoekiko elkarlana indartu nahi dira, GJHak erakundeen kudeaketan eta barne-funtzionamenduan inplementatu; 2030 Agenda hedatu eta sustatu, herritarren inplikazioa bultzatuz; GJHen elkartasun- eta jasangarritasun-printzipioak sustatu euskal gizartean, 2030 Agenda kontratu sozialaren oinarri gisa; eta 2030 Agenda nazioartean bultzatzeko lanean lagundu, 2030 Agendaren lokalizazioaren eta elkarlaneko gobernantzaren Euskadiko esperientzia modelizatuz.

Euskadin aurrerapausoak emateko beste elementu bat adierazle-sistemen, jarraipenaren eta GJHek gure lurraldean duten betetze-maila adierazteko balantzearen garapena da. Aipatu bezala, 2030 Agendak erakunde publikoen, entitate pribatuen eta eragile sozialen politikak lerrokatzen ditu mundu osoan, 17 helburu, 169 xede eta ebaluazio-adierazleekin. 2023az geroztik, 335 **adierazle estatistikoren panel bat** dago Eustaten plataforman. Horietatik 103 adierazle lurralde historikoen mailaraino bereizita daude, eta 69 adierazle, udalerrien mailaraino. Halatan, erakundeen politika publikoen jarraipena eta ebaluazioa egin daiteke¹³.

GJHen betetze-mailaren jarraipena egiteko ariketa horren baitan, **2030 Agendaren Euskadiko urteko borondatzeko jarraipen-txostenak**¹⁴ aurkezten zaizkio NBEri 2018az geroztik. Azken urteotan, honako eranskin hauek atxiki zaizkie txostenei: Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua GJHetarako, Bultzatu 2050 Hiri Agendaren jarraipena edota 2024ko martxoan aurkeztutako

¹¹ Informazio gehiago nahi izanez gero, jo hona: <https://www.euskadi.eus/eragile-anitzeko-foroa/web01-a2lehet/eu/>

¹² Informazio gehiago nahi izanez gero, jo hona: <https://www.euskadi.eus/gjhen-aldeko-euskal-aliantza/web01-a2lehet/eu/>.

¹³ Panela hemen dago: <https://eu.eustat.eus/adierazleak/gjh.html>.

¹⁴ Informazio gehiago nahi izanez gero, jo hona: <https://www.euskadi.eus/dokumentu-interesgarriak/trantsizio-soziala/web01-a2lehet/eu/>.

txostena, Eusko Jaurlaritzaren, hiru foru-aldundien eta Euskadiko hiru hiriburuetako udalen baterako ikuspegia adierazten duena.

EHSS eta 2030 Agenda

EHSSk 2030 Agenda Euskadin sustatu eta hedatzeko ibilbidean parte hartu du hasieratik. EHSSren muinean, gizarte bidezkoagoa, berdinzaleagoa eta solidarioagoa elkarrekin lortzen laguntzeko xede irmoa dago, inor atzean ez uzteko eta 2030 Agendaren oinarritzko alderdiak garatzeko: **pertsonak, oparotasuna, planeta, aliantzak eta bakea**. Hari horretatik, Trantsizio Sozialerako eta **2030 Agendarako Euskadiko Eragile Anitzeko Foroan** parte hartzen du Sareen Sarearen eta EHSSko beste entitate batzuen bitartez, besteak beste, eta horiek Foroaren gobernantza-estadioetan aritzen dira. Halaber, EHSS **2030 Agendaren lehentasunen euskal programako** eragile aktiboa da. EHSSren baitan, espazio hori aukera gisa ikusten da, gizarteredu bidezkoagoa eta humanoagoa ehuntzeko gainerako erakunde eta sektoreekin elkarlanean.

GJHen aldeko Euskal Aliantzako partaide aktiboa da EHSS, orobat. Eta EHSSko sareetan eta entitateetan topo egin, hausnartu, ikasi, sortu eta elkarlanean aritzeko espazioak bultzatzen dira, GJHak betetzea eta 2030 Agenda hedatu eta gauzatzea dela eta.

Hori guztia EHSSk zeregin garrantzitsua edukitzen jarraitzeko oinarri ona da, 2030 Agenda eta GJHak Euskadin inplementatzeko prozesuan, 2030 Agenda kontratu soziala bultzatzeko lanean —elkarriketan eta herritarren partaidetzan oinarrituta— eta aurrez aurre ditugun erronka sozialei heltzeko aukera paregabe gisa. Horri erreparatuz, Sareen Sareak 2022ko apirilean kaleratutako lan hau azpimarratu behar da: **Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala 2030 Agendaren eta Garapen Jasangarrirako Helburuen aurrean; ekarpena eta jarrera**¹⁵. Hartan, GJHetan finkatutako xedeen eta 2030 Agendaren erdiespena bultzatzeko 400 ekintza baino gehiago bildu dira, eta 2030 Agendan proposatutako xedeak eta adierazleak lortzeko bidea errazteko zenbait proposamen.

2.4. EHSSren definizioa eta ezaugarriak

Testuinguruan jartzeko, beharrezkoa da EHSSren elementu bereizgarri batzuk nabarmentzea, haren konfigurazioa eta jardura ulertu ahal izateko. Sektore plurala eta anitza da EHSS, identitate-ezaugarri batzuk partekatzen dituzten ekimen eta esku-hartze sozialeko erakundeek osatua. Eraldaketa sozialera bideratuta egotea da ezaugarri nagusia, eta gizarte justu, berdinzale, parte-hartzaile eta solidarioago baten alde egitea. Zaurgarritasun-, bazterkeria-, babesgabetasun-, desgaitasun- eta/edo mendekotasun-egoeretan dauden pertsonen, familien eta kolektiboen inklusio soziala eta eskubideen egikaritzea sustatzea da garatzen dituzten jardueren helburu nagusia. Eta, horretarako, intzidentziarekin, sentsibilizazioarekin edo

¹⁵ Dokumentua hemen dago: <https://sareensarea.eus/eu/albisteak/euskadiko-hirugarren-sektore-soziala-2030-agendaren-eta-garapen-jasangarrirako-helburuen-aurrean/>

salaketarekin lotutako zerbitzuak (erantzukizun publikokoak, edo ez) edo jarduerak eskaintzen dituzte.

EHSSren 2021eko barometroaren arabera, 4.117 erakundek osatzen dute EHSS. Erakunde horiek 39.916 langile dituzte gutxi gorabehera, eta 160.493 boluntarioren partaidetza soziala bideratzen dute.

Erakundeen % 58,2k adierazi duenez, zeharkako eremu sozialean garatzen dute jardueraren zati bat, gutxienez. Eta entitateen erdiek baino zerbait gehiagok gizarte-zerbitzuen eremuan lan egiten dute (% 53,4). Gainera, % 42,9 hezkuntzaren eta aisialdiaren inguruan ari da lanean, eta % 35,7k osasungintzan garatzen du lana neurri batean.

1. grafikoa *Jarduera-eremu bakoitzean diharduten erakundeak (%)*




Iturria: barometroa (2021)

2. grafikoa *Erakundeen banaketa, artatzen duten kontingentziaren arabera (%)*.

Iturria: barometroa (2021)

Artatzen den kontingentziari dagokionez, 10 entitatetik bik bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzte; % 14,3k, desgaitasuna duten pertsonak; % 7,8k, babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan daudenak; eta % 2,9k, mendekotasun-egoeran daudenak edo mendekotasunean egoteko arriskuan daudenak. Gainerakoen jardueraren, hau da, erakundeen erdien baino gehiagoren jardueraren hartzaille nagusiak beste zaugarritasun- edo desberdintasun-egoera batzuk bizi dituzten pertsonak eta abar dira.

EHSSko erakundeek askotariko kolektiboak artatzen dituzte. Gutxi gorabehera, erakundeen erdiak emakumeak, gazteak eta herritarrak oro har artatzen ditu, neurri txikiagoan edo handiagoan. Erakunde guztien % 43,3k haurrekin eta nerabeekin lan egiten du. Era berean, oso ugariak dira adinekoekin (% 35), etorkinekin (% 33,4) edo pobrezia-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonekin (% 31,1) lan egiten duten erakundeak.

3. grafikoa Erakundeen banaketa, ekintzaren kolektibo hartzaile nagusiaren arabera (%).

Iturria: barometroa (2021)


EHSSko erakunde gehienek (% 83,5), zerbitzuak eskaintzeaz gain, sentsibilizazioarekin eta eskubideen defentsarekin lotutako beste funtzio sozial ere batzuk egiten dituzte. Modu horretan, zereginen oreka bideratzen da gehiengoa diren erakundeen artean. Alde batetik, zerbitzuak emanez, erakundeek behar sozialei erantzuten diete eta baliabideak gerturatzen dizkiete beharrak dituzten herritarrei. Hartara, baliabide horiek eskuratzea errazten dute. Eta bestetik, gaitasun kritikoa, eragin soziala, beharrak detektatzea eta sentsibilizazioa sektorearen oinarritzko balioetako batzuk dira, eta haien identitatearen funtsezko elementu.

Zerbitzuak ematen dituzten erakundeen artean, erdiak baino gehiagok aisia eta denbora libreko zerbitzuak ematen ditu (% 51,8), edota trebakuntza- eta heziketa-zerbitzuak (% 51,3). Ia 10 erakundetik 4k informazio- eta orientazio-zerbitzuak eskaintzen dituzte (% 39,9) eta ehuneko oso antzeko batek laguntza soziala (% 37,5), esku-hartze sozio-hezitzailea (% 37,2), aholkularitza edo orientazioa (% 36,5) eta esku-hartze psikosoziala (% 34,5) eskaintzen dute.

4. grafikoa Zerbitzuetako bakoitza ematen duten erakundeak (%)

Iturria: barometroa (2021)

Eragin sozialarekin zerikusia duten zeregin sozialen artean, entitate gehienek sentsibilizazio-ekintzak egiten dituzte (% 77,3). 10 erakundetik 6tan boluntariotzaren, elkarrekiko laguntzaren, parte-hartze sozialaren eta asoziazionismoaren sustapena egiten dute. Eta erakundeek erdiak inguruk eskubideak salatu eta sustatzen ditu (% 49,3).

5. grafikoa Zeregin sozialetako bakoitza egiten duten erakundeak (%).

Iturria: barometroa (2021)

EHSSko erakundeek % 78,1 erakunde txikiak edo ertainak dira, eta 300.000 € baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzte. Oso diru kopuru desberdinak esku artean dituzten erakundeak daude. Erakundeek % 7,5ek milioi eta erdi euro baino gehiagoko aurrekontuak kudeatzen ditu, eta sektoreko entitateen % 29,2ren diru-sarrerak 12.000 €-tik beherakoak dira.

6. grafikoa Erakundeek banaketa, 2020ko diru-sarreraren arabera (%).




Iturria: barometroa (2021)

Ordainpeko langileen eta boluntarioen banaketa dela eta, erakundeek % 56,5ek ordainpeko langileak dituzte lantaldeetan; gainerako erakundeetan (% 43,5), berriz, lantaldeak boluntarioekin osatuta daude oso-osorik.


Lantaldeetan boluntarioek duten presentziari dagokionez % 89,1etan boluntarioen presentzia esanguratsua da, erakundea osatzen dutenen erdia edo gehiago baitira. Egiaz, erakundeek % 43,5 oso-osorik boluntarioz osatuta dago. Horren antzera, ohikoena da soldatapeko langileak lantaldea osatzen duten pertsonen laurdena baino gutxiago izatea. Ordainpeko langileak erakundeek % 14,4ean soilik dira gehiengoak.

7. grafikoa Erakundeek banaketa, lantaldeetan boluntarioek duten pisuaren arabera (%).



Iturria: barometroa (2021)

8. grafikoa. Erakundeek banaketa, lantaldeetan ordainpeko langileek duten pisuaren arabera (%).



Iturria: barometroa (2021)

3. PLANTEAMENDUA ETA HELBURUAK

Lehenago aipatu bezala, proiektuaren xedea bestelako interpretazio-esparruak eskaintzea da, hirugarren sektore soziala deskribatzeko erabili ohi direnen bestelakoak. Era horretan, EHSSko erakundeek lana erronka sozialekin lotuta dauden beste gako batzuetatik ulertuko da.

Illo horretan, ESEZren eta GJHen interpretazio-esparru alternatiboek bestelako egitura edo eskema narratiboa eskaintzen dute, sektoreko diagnostikoetan eskuarki erabiltzen direnen aldean. Horien bitartez, erakundeek jarduera erakutsi nahi da erantzuten dien eta barne hartzen duten erronka sozialekin konektatuta. Halarik ere, txostenak helburu hauek ditu:

1. Interpretazio-esparru alternatiboak eskaintzea EHSSko erakundeek lana ulertzeko, dagozkion erronka sozialak gogoan. Horretarako, ESEZ eta GJHak hartuko dira erreferentziatzat.
2. Erakundeek egiten duten jarduera ESEZren eta GJHen ikuspegitik aztertzea.
3. Hizpide ditugun interpretazio-esparruek eskaintzen dituzten aukerei buruz batera hausnartzea eta, besteak beste, ibilbideak, zailtasunak eta aukerak identifikatzea.

Horrela jokatzuz, EHSSk hura osatzen duten erakundeek jardueraren bitartez —nola zerbitzuak emanez hala eraginarekin lotutako beste zeregin sozial batzuk eginez— gauzatzen duen ekarpena ikusgai jarri nahi da. Hori ez ezik, eraldaketa sozialaren eragile garrantzitsu gisa duen rola erakutsi nahi da, behar, arazo eta erronka sozialei erantzuten baitie, eta identitate partekatua zein eragile garrantzitsu gisa duen jarrera sendotu nahi dira.

Taula honetan helburu bakoitza agertzen da, **lan-prozesuaren** gidari izan diren galderekin:

HELBURUAK	GALDERAK
EHSSko erakundeek lana ulertzeko interpretazio-esparru zabala eskaintzea.	• Zer alde on eskaintzen dituzte interpretazio-esparru horiek EHSSren jarduera ulertzeko, sektoreari buruzko diagnostikoetan erabili ohi direnez harago? • Zer balio edo interes eskaintzen dituzte ESEZk eta GJHeK, erakundeek lana kokatu eta gidatzeko esparru gisa?
Erakundeek egiten duten jarduera ESEZren eta GJHen ikuspegitik aztertzea.	• Zer erantzun eskaintzen dituzte EHSSko erakundeek ESEZren aurrean, bakoitzak bere jardueratik? • Zer erantzun eskaintzen dituzte EHSSko erakundeek GJHen aurrean, bakoitzak bere jardueratik?
Elkarrekin hausnartu eta ibilbideak, oztopoak eta aukerak identifikatzea	• Nolako harrera jasotzen ari dira interpretazio-esparru horiek erakundeetan? Zer ibilbide identifikatu dira? • Zer oztopo daude prozesuaren une bakoitzean? • Zer elementuk eragiten dute kezka? Eta zer aukera eskaintzen dituzte? • Zer ahalmen dute? Zer balio eskaintzen dute erakundeek?

4. METODOLOGIA ETA LAN PROZESUA

4.1 Metodologia

Proiektuaren xedea eta ezarri diren helburuak kontuan izanik, ikuspegi metodologiko misto batetik heldu zaio ikerlanari, eta teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak uztartu dira. Alde batetik, **metodologia kualitatiboa** gauzatzeko, elkarrizketa egin zaio Eusko Jaurlaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiari eta eztabaida-taldeak egin dira askotariko profilak dituzten profesionalekin (zuzeneko arreta, kudeaketa eta koordinazioa), boluntarioekin eta EHSSko hainbat entitatetako hartzaileekin. Beste aldetik, **metodologia kuantitatiboa** bideratzeko, arreta EHSSren azterketa diagnostikoan jarri da; zehatz-mehatz, 2021eko barometroaren datuak erabili dira, berrirakurketa bat egiteko ESEZn eta GJHetan oinarrituta.

4.1.1 EHSSren datu diagnostikoen azterketa eta berrirakurketa

Ondorengo azterlan kualitatiboari begira, ESEZren eta GJHen interpretazio-esparruak aztertu dira lehenik, ESEZren printzipioak eta GJHen helburuak eta xedekak identifikatzeko, EHSSko erakundeen jarduerarekin zerikusia dutenak eta EHSSko erakundeak beren jarduerarekin lortzeko lagungarri izan daitezkeenak.

Jarraian, HSSEBren datuak baliatuta (2021eko barometroaren lan-prozesuan bildutakoak¹⁶), ikerlanean parte hartu duten erakundeetako bakoitzaren jarduera xehe aztertu zen, ESEZren eta GJHen interpretazio-esparruen araberrako kategoriatan banatzeko. Besteak beste, honako aldagai hauei buruzko datuak aztertu dira: jarduera-eremua, artatzen den kontingentzia, erakundeen jardueraren kolektibo hartzailea, ematen dituzten zerbitzuak eta eragin sozialarekin lotutako jarduerak. Hortik abiatuta, hainbat elementu osagarri hauteman dira, eta, egin den interpretazio-ariketaren bitartez, erakundeen jarduera *berrirakurri* edo *birkokatu* ahal izan da bi interpretazio-esparruk eskaintzen duten erantzunetik abiatuta: ESEZren eta GJHen esparruak erabili dira, hain zuzen¹⁷. Geroago, aldagaiak gurutzatu egin ziren entitateak zertan diren berdinak eta desberdinak ikusteko: tamaina, ordainpeko langileak, boluntarioak, kontingentzia eta jarduera-eremua, besteak beste. Era horretan, azterketa zehatzagoa egin ahal izan da.

EHSSri buruzko 2021eko barometroan eskura dauden datu diagnostikoetatik egindako *berrirakurketa* bat izanik, adierazi behar da ESEZri eta GJHri emandako erantzun-mailaren gaineko datuak EHSSren ezaugarriekin eta jarduerarekin bat datozela, baita identitatearekin, kolektibo hartzaileen aniztasunarekin, ematen dituen zerbitzuekin eta eraginaren jarduerarekin ere.

¹⁶ Gogora ekarri behar da EHSSko 370 erakundek parte hartu zutela 2021eko barometroan, onlineko galdetegiaren bidez. Lagina Euskadi osorako adierazgarria zen, % 95eko konfiantza-mailarekin eta % 4,86ko errore-tartearekin. 2021eko barometroaren metodologiari buruzko informazio gehiago dago hemen: https://sareensarea.eus/wp-content/uploads/2022/12/Informe_BAROMETRO2021_DEF_eu.pdf

¹⁷ Une honetan aipatu behar da azterketaren muina erakundeen jarduera eta horren bidezko erantzun sozialak izan direla, ez erakundeen bizitza eta barne-egitura.

4.1.2. Elkarrizketa eta eztabaida-taldeak

Batetik, testuingurua azaltzeko eta 2030 Agenda eta GJHak Euskadin nola lantzen diren jakiteko, elkarrizketa erdiegituratua egin zaio Eusko Jaurlaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiari. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzaren apustuak eta bulkadak ezagutu ahal izan ziren, 2030 Agendari ekarpena egiteko asmoz bideratu dituenak.

Beste aldetik, galderen gidoi erdiegituratu bat erabiliz, ikertzaile-taldea EHSSko erakundeekin bildu zen. Askotarikoak ziren tamainari, jarduera-eremuari, jardueraren kolektibo hartzaileari eta beste ezaugarri batzuei erreparatuz. Helburua topagune bat sortzea zen, pertsona-talde bat nahasi eta elkarrekin hausnartzeko EHSSko entitateak bizitzen ari diren hainbat gairen garrantziari buruz, interpretazio-esparruei dagokienez. Zehazki, harrera-prozesua nola gertatzen ari zen eta zer zailtasun sortu zitezkeen jakin nahi zen, zer aukera ematen dituzten, zer arrisku identifikatzen diren eta zer ekintzak erraztuko luketen horiek kokatu eta inplementatzeko prozesua.


Aurrez aurre bildu ziren hainbat profiletako ordainpeko langileak (zuzeneko arreta, koordinazioa eta kudeaketa), hartzaileak eta boluntarioak, beren iritziak eta ikuspegiak adierazteko, beren errealitatearen azterketan sartzeko ahalegina eginez. Nabarmendu behar da teknika horrek interakzioa izan eta ikuspegiak partekatzen dituzten heinean etengabeko gogoetak sortzen joateko aukera ematen duela, eta taldeko gainerako pertsonen “babesa” sentitzea errazten du, eremua, gogoeta eta bizipen bera partekatzen baitute.

Lau eztabaida-talde egin dira: bat EHSSko sareekin, eta hiru EHSSko askotariko erakundeekin, lurralde historiko bakoitzean bat. Guztira, EHSSko 32 erakundetako 35 pertsonak parte hartu dute. Partaidetza handiagoa izan eta azterketa zabaltze aldera, dokumentu labur bat betetzeko eskatu zitzairen eztabaida-taldeetara gonbidatu baina bertaratu ezin izan ziren erakundeei. Dokumentuan, taldeetan jorratutako galdera irekiak jaso ziren. Informazio hori ere azterketan sartu da.

4.2. Lan-prozesua eta azterketa

Lan-prozesua lau fase sekuentzialetan bideratu da. **Lehenengoan** ikerlana diseinatu da, eta helburu hauek zituen: dokumentuak berrikustea, ikergaia mugatzea, esparrua eta txostenaren justifikazioa prestatzea eta landa-lanerako tresnak diseinatzea. **Bigarrenean**, landa-lana garatu da, EHSSren datu diagnostikoak aztertu edo berrirakurri dira, eta elkarrizketa erdiegituratua zein eztabaida-taldeak egin dira. **Hirugarrenean**, landa-lanean bildutako informazioa aztertu da. Eta **laugarren eta azken fasean**, emaitzak transferitu dira, txostena argitaratu ostean.

Hurrengo koadroan grafikoki daude bilduta **lau faseak** eta bakoitzean egindako urratsak:




5. EHSS-REN ERANTZUNAK ESEZ-RI

Txostenaren atal honetan, EHSSren jarduera aztertuko da, ESEZri nola erantzuten dion aintzakotzat hartuta. Horretarako, bi ariketa egin dira: EHSSren jarduerarekin lotuta dauden ESEZko eskubideak hautatu dira, eta, gero, 2021eko barometroaren datuak aztertu eta erakundeen erantzun-maila identifikatu da, ESEZko eskubide horietako bakoitzaren aurrean.

Adierazi bezala, hiru kapituluek osatzen dute ESEZ: **I. kapitulua:** aukera-berdintasuna eta lan-merkatura sartzeko berdintasuna; **II. kapitulua:** lan-baldintza bidezkoak; eta **III. kapitulua:** babesa eta inklusioa. Hiru kapituluez gain, 20 eskubide biltzen dira ESEZn.

1. irudia. Eskubide Sozialen Europako Zutabearen laburpena.



Iturria: Europako Batzordea (2022).¹⁸

Proiektu honetan, erronka sozialekin eta EHSSko entitateen lanarekin zuzeneko lotura duten printzipioetan jarri da arreta. Hala, ez dira azterketan sartu EHSSk jarduteko gaitasuna ez duen printzipioak, administrazio publikoaren eta beste eragile sozial batzuen eskumenei dagozkielako argi eta garbi. Horrenbestez, printzipio hauek hautatu dira:

- **ESEZ 1:** hezkuntza, trebakuntza eta ikaskuntza jarraitua
- **ESEZ 2:** Genero-berdintasuna
- **ESEZ 3:** Aukera-berdintasuna

¹⁸ Infografia jatorrizko hizkuntzan aurkeztu da, iturri ofizialak euskarazko bertsiorik eskaini ez duelako.

- **ESEZ 4:** enplegurako laguntza aktiboa
- **ESEZ 10:** laneko ingurune osasungarria, segurua eta egokitua, eta datuen babesa
- **ESEZ 11:** haurrei laguntza eta babesa
- **ESEZ 14:** gutxieneko errenta
- **ESEZ 15:** pentsioak eta zahartzaroko prestazioak
- **ESEZ 16:** osasungintza
- **ESEZ 17:** desgaitasuna dutenen inklusioa
- **ESEZ 18:** iraupen luzeko zainketak
- **ESEZ 19:** etxebizitza eta laguntza etxerik ez dutenentzat
- **ESEZ 20:** oinarritzko zerbitzuak eskuratzea

Goiko 13 printzipioak modu espezifikoan hautatu dira bi arrazoiengatik: lehenik, EHSSri eragin diezaioketen eskubideak dira, eragile soziala den aldetik; eta bigarrenik, EHSSko erakundeek jarduerarekin lotutako eskubideak dira. Hortaz, honako hauek azterketatik at geratu dira: ESEZ 5, 6, 7, 8, 9, 12 eta 13.

Hautatu diren ESEZren printzipioekin, azterlanean parte hartu duten erakundeetako bakoitzaren jarduera modu espezifiko eta xehean aztertu da, ESEZren printzipio horietako bakoitzarekin lotutako kategorietan sailkatzeko. Hala, honelako datuak aztertu dira: jarduera-eremua, artatzen den kontingentzia, erakundeek jardueraren kolektibo hartzailea, ematen dituzten zerbitzuak eta eragin sozialarekin lotutako jarduerak.

EHSSko erakundeek ESEZren printzipio horiei emandako erantzuna aztertzeko, ikertzaile-taldeak printzipioen adierazpenaren interpretazio-ariketa sistematikoa egin du. Aldi berean, EHSSren datu diagnostikoen berrirakurketa gidatu duten irizpide orokorrak finkatu ditu, eta, era horretan, erakundeek jardueraren azterketa xehea bideratu dute. Abiapuntu horrekin, osagai jakin batzuk identifikatu dira, eta interpretazio-ariketaren bitartez, erakundeek jarduera *birkokatu* egin da ESEZren esparrua baliatuz.

Jarraian jaso diren datuak HSSEBren datuekin egindako azterketa kuantitatiboaren emaitza dira. Datuak 2021eko barometroaren lan-prozesuan zehar bildu ziren, eta EHSSko erakundeek hautatu diren printzipioetako bakoitzari nola erantzun dioten ikusteko balio dute, aurretik finkatutako irizpideetan oinarrituta¹⁹. Aukera dagoenean, 2021eko barometroaren datuak adierazi dira, ESEZri emandako erantzunaren datuarekin koherentzia ote dagoen ikus baitaiteke modu horretan.

¹⁹ ESEZ Europari soilik dagokio. Hala eta guztiz ere, nazioartean diharduten entitateak ere sartu dira; esate baterako, garapenerako nazioarteko lankidetzan aritzen direnak.

I. KAPITULUA: AUKERA BERDINTASUNA ETA LAN MERKATURA SARTZEKO BERDINTASUNA

ESEZ 1: HEZKUNTZA, TREBAKUNTZA ETA IKASKUNTZA JARRAITUA

Pertsona orok du kalitate oneko hezkuntza, trebakuntza eta ikaskuntza jarraitu eta inklusiboak jasotzeko eskubidea, gizartean bete-betean parte hartu eta lan-merkatuan trantsizioak arrakastaz kudeatzeko gaitasunak mantendu eta eskuratzeko aldera.




Entitateen % 60k ESEZ 1 erdiesteko bidean laguntzen du.

Aisialdian (% 92,2), gizarte-zerbitzuetan (% 81,6) eta garapenerako nazioarteko lankidetzan (% 70,4) lan egiten duten erakundeak dira nagusiki. Gainera, entitate horiek, batez ere, bazterkeria sozialeko egoeran edo arriskuan dauden pertsonak (% 78,4) eta babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan daudenak (% 75,7) artatzen dituzte, eta 51-100 boluntariok dihardute horien lantaldeetan (% 74,3). Halaber, entitate handiak dira, ordainpeko langileei eta diru-sarrerei dagokienez.

Entitateen % 60k ESEZ 1 erdiesteko bidean laguntzea bat dator 2021eko barometroaren datuekin. Horiei jarraikiz, erakundeen % 51,3k trebakuntza- eta heziketa-zerbitzuak ematen ditu, eta % 37,2k, berriz, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea.

ESEZ 2: GENERO BERDINTASUNA

Emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasuna eremu guztietan bermatu eta sustatu behar da, baita lan-merkatuko partaidetzan, lan- eta enplegu-baldintzetan eta karrera profesionalean ere. Emakumeek eta gizonek ordainsari berdina jasotzeko eskubidea dute, balio bereko lana egiteagatik.



Entitateen % 45,7k ESEZ 2 erdiesteko bidean laguntzen du.

Enpleguak dira batik bat (% 68,6), eta oso gertu dituzte garapenerako nazioarteko lankidetzakoak (% 64,3) eta soziala-zeharkakokoak (% 57,2). Bestalde, bazterkeria sozialeko egoeran edo arriskuan dauden pertsonak (% 77,4) eta babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan daudenak (% 59,8) artatzen dituzte batez ere. Entitate ertain-handiak dira, aurrekontuari, ordainpeko langileei eta boluntarioei erreparaturik.

Entitateen % 45,7k ESEZ 2 erdiesteko bidean laguntzea bat dator EHSSren 2021eko barometroaren datuekin, zeinaren arabera erakundeen % 49,7ren jarduerak emakumeak dituen hartzailerik, neurri batean bederen.

ESEZ 3: AUKERA BERTINTASUNA

Alde batera utzirik sexua, arraza-jatorria, jatorri etnikoa, erlijioa edo uste sendoak, desgaitasuna, adina edota sexu-orientazioa, pertsona orok du tratu- eta aukera-berdintasunerako eskubidea, enpleguan, babes sozialean, hezkuntzan eta jendearen eskura dauden ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko orduan. Ordezkaritza txikia duten taldeen aukera-berdintasuna sustatu behar da.



Entitateen % 100ek ESEZ 3 erdiesteko bidean laguntzen du.


EHSSri buruzko legean (2016) honako hau xedatzen da: “Ondorioz, hirugarren sektore soziala euskal gizartearen funtsezko aktiboa da, batetik, edozein egoeratan –bereziki, ekonomiaren, politikaren, erakundearen, gizartearen eta balioen alorretan egun pairatzen ari garen krisialdi-egoera honetan– bidezkoa, berdintasunezkoa, solidarioa, kohesionatua, partizipatiboa eta demokratikoa izango den gizarte gisa eratu dadin; eta bestetik, premia sozialei modu egokiagoan erantzun dakien, hots, modu integral, gertuko, pertsonalizatu eta partizipatiboan, betiere sektoreen arteko lankidetzan oinarrituta eta pertsona, familia, kolektibo eta komunitate jasotzaileen partizipazioarekin”. Hortaz, EHSSko erakunde guztiek zaugarritasun-arriskuan edo -egoeran dauden kolektiboak eragiten dieten desparekotasunak murrizteko lan egiten dutela ulertzen da.

ESEZ 4: ENPLEGURAKO LAGUNTZA AKTIBOA

Pertsona orok du laguntza pertsonalizatua eta egokia jasotzeko eskubidea, enplegurako edo lan autonomorako aukerak hobetzeko asmoz. Hartara, enplegua bilatzeko, trebatzeko eta birziklatzeko laguntzarako eskubidea horren baitan dago. Pertsona orok du babes soziala transferitzeko eskubidea eta trantsizio profesionaletan trebakuntza jasotzeko eskubidea..

Gazteek heziketa jarraitua jasotzeko, ikastun gisa trebatzeko, praktikaldia egiteko edo kalitate oneko enplegu-eskaintza bat jasotzeko eskubidea dute, langabezian geratu edo ikasketak amaitu ondorengo lau hilabeteetan.

Langabeek laguntza pertsonalizatua, jarraitua eta egokia jasotzeko eskubidea dute. Epe luzeko langabeek banakako ebaluazio xehea jasotzeko eskubidea dute, langabe gelditu eta 18 hilabetera gehienez ere.



Entitateen % 41,8k ESEZ 4 erdiesteko bidean laguntzen du.

Enpleguan (% 89,7) eta gizarte-zerbitzuetan (% 64,2) lan egiten duten erakundeak dira gehienbat. Arretaren kontingentziari dagokionez, bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonekin (% 72,3), desgaitasuna dutenekin (% 54,6) eta beste kolektibo zaugarri batzuekin (% 31,9) lan egiten dute. Erakundearen tamaina dela eta, boluntario-kopuru ertaina, ordainpeko langile-kopuru handia eta oso aurrekontu handia dute.

II. KAPITULUA: LAN BALDINTZA BIDEZKOAK

ESEZ 10: LANEKO INGURUNE OSASUNGARRIA, SEGURUA ETA EGOKITUA, ETA DATUEN BABESA

Langileek osasunaren eta segurtasunaren babes-maila handia jasotzeko eskubidea dute lanean. Langileek **behar profesionaletara egokitutako laneko ingurunea** izateko eskubidea dute, lan-merkatuko partaidetza luzatzeko aukera ematen diona. Langileek datu pertsonalak babestuak izateko eskubidea dute enpleguaren testuinguruan.



Entitateen % 9,7k ESEZ 10 erdiesteko bidean laguntzen du

Horrelako entitateek enpleguan (% 100) eta gizarte-zerbitzuetan (% 26,5) lan egiten dute batez ere, eta desgaitasuna duten pertsonak artatzen dituzte (% 44,6). Entitate handiak dira, ordainpeko 100 langile baino gehiago dituztenak, eta milioi bat euro eta erditik gorako diru-sarrerak.

III. KAPITULUA: BABESA ETA INKLUSIO SOZIALA

ESEZ 11: HAURREI LAGUNTZA ETA BABESA

Haurrek arrazoizko eta kalitate oneko hezkuntza eta laguntza jasotzeko eskubidea dute. Haurrek pobrezia-aren kontra babestuta egoteko eskubidea dute. Behar-aren dauden inguruneetako haurrek neurri espezifikoetarako eskubidea dute, aukera-berdintasuna sustatzeko xedez.



Entitateen % 60,9k ESEZ 11 erdiesteko bidean laguntzen du.

Heziketako aisialdian (% 96,1) eta gizarte-zerbitzuetan (% 81,8) diharduten erakundeak dira batez ere. Horrekin bat etorritik, bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak (% 75,4) edo babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan daudenak (% 72,6) artatzen dituzte nagusiki. Eskuarki, entitate handiak dira.

Datu hori 2021eko barometroaren datuekin bat dator. Horren arabera, erakundeek % 43,3k haurrak, nerabeak eta haien familiak artatzen dituzte, % 47,4k, gazteak, eta % 31,1ek, pobrezia-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak.

ESEZ 14: GUTXIENKO ERRENTA

Nahikoa baliabide ez dituen pertsona orok gutxieneko errentaren prestazio egokiak jasotzeko eskubidea du, bizitzaren etapa guztietan bizitza duina, ondasunak eskuratzea eta gaikuntza-zerbitzuak jasotzea bermatzen dutenak. Lan egin dezaketen pertsonen kasuan, gutxieneko errentaren prestazioak lan-merkatura (berriz) sartzeko pizgarriekin konbinatu behar dira.




Entitateen % 18,7k ESEZ 14 erdiesteko bidean laguntzen du

ESEZ 14ri heinik handienez erantzuten dieten erakundeek enpleguan dihardute (% 100) edo bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzte (% 56,9). Oso erakunde handiak dira, 1,5 milioi eurotik gorako diru-sarrerekin (% 32,7).

Datu hori eta 2021eko barometroarena bat datoz. Horri jarraituz, EHSSko erakundeek % 18,4k enpleguan lan egiten du, neurri batean behintzat.

ESEZ 15: PENTSIOAK ETA ZAHARTZAROKO PRESTAZIOAK

Besteren konturako langileek eta norbere konturako langileek beren ekarpenekin bat datorren erretiro-pentsioa jasotzeko eskubidea dute, eta pentsio horren errenta egokia bermatu behar du. Bestalde, emakumeek eta gizonek aukera berak izan beharko dituzte pentsio-eskubideak lortzeko. Azkenik, zahartzaroan dagoen edozein pertsonak bizitza duina bermatzen duten baliabideak jasotzeko eskubidea du.



Entitateen % 34,6k ESEZ 15 erdiesteko bidean laguntzen du.

Batik bat, sozial-zeharkako erakundeak dira (% 50,4), eta mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen arreta ematen dietenak (% 100)

Datu hori eta 2021eko barometroarena bat datoz. Horri jarraikiz, EHSSko erakundeek % 35ek adinekoak artatzen ditu, neurri batean edo bestean.

ESEZ 16: OSASUNGINTZA

Pertsona orok arrazoizko, prebentziozko eta kalitate oneko osasun-laguntza sendagarria behar bezala jasotzeko eskubidea du.



Entitateen % 28,8k ESEZ 16 erdiesteko bidean laguntzen du.

Funtsean, osasungintzako (% 100) eta gizarte-zerbitzuetako (% 65) erakundeak dira, eta mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen (% 73,1) eta desgaitasuna duten (% 70,4) arreta ematen dietenak.

Entitateen % 28,8k ESEZ 16 erdiesteko bidean laguntzea bat dator EHSSren 2021eko barometroaren datuarekin, zeinaren arabera erakundeen % 35,7k osasungintzan lan egiten baitu, neurri batean bederen.

ESEZ 17: DESGAITASUNA DUTENEN INKLUSIOA

Desgaitasuna dutenek errentan laguntzeko eskubidea dute; horrek bizitza duina bermatzen die. Era berean, lan-merkatuan eta gizartean parte hartzeko zerbitzuetarako eskubidea dute, baita laneko ingurunea beharretara egokituta egoteko eskubidea ere.




Entitateen % 20,2k ESEZ 17 erdiesteko bidean laguntzen du.

ESEZ 17rako ekarpen handiena egiten dutenak osasungintzan (% 53,5) eta gizarte-zerbitzuetan (% 35) aritzen dira gehienbat, baita desgaitasuna dutenentzako arretan ere (% 100).

Entitateen % 20,2k ESEZ 17 erdiesteko bidean laguntzea bat dator EHSSren 2021eko barometroaren datuarekin, zeinaren arabera erakundeen % 14,3ren kontingentzia nagusia desgaitasuna dutenak artatzea den.

ESEZ 18: IRAUPEN LUZEKO ZAINKETAK

Pertsona orok du iraupen luzeko arrazoizko eta kalitate oneko zainketak jasotzeko eskubidea, bereziki etxez etxeko laguntza eta zerbitzu komunitarioak.




Entitateen % 27,9k ESEZ 18 erdiesteko bidean laguntzen du.

Funtsean, osasungintzako (% 81,1) eta gizarte-zerbitzuetako (% 77,2) erakundeak dira, eta mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen (% 100) eta desgaitasuna duten (% 77) arreta ematen dietenak. Gainera, aurrekontu handia izaten dute, eta ordainpeko langile ugari lantaldeetan.

ESEZ 19: ETXEBIZITZA ETA LAGUNTZA ETXERIK EZ DUTENENTZAT

Beharra dutenei etxebizitza sozialetan sartzeko aukera edo kalitate oneko etxebizitzetan sartzeko laguntza eman behar zaie. Pertsona zaurgarriek laguntza eta babes egokiak jasotzeko eskubidea dute, nahitaezko joanarazteen aurrean. Etxerik ez dutenei ostatua eta zerbitzu egokiak eman behar zaizkie, haien inklusio soziala sustatzeko.



Entitateen % 18,5ek ESEZ 19 erdiesteko bidean laguntzen du.

Funtsean, bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzte (% 66,5). Lantaldean ordainpeko 51 eta 100 langile artean daude (% 48,9), eta 1,5 milioi eurotik gorako diru-sarrerak dituzte (% 39,3).

Datu hori eta 2021eko barometroaren datuak antzekoak dira. Azken horien arabera, erakundeek % 19,4k bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen ditu, eta, zehazki, erakundeek % 12,8k etxerik ez duten pertsonak artatzen ditu.

ESEZ 20: OINARRIZKO ZERBITZUAK ESKURATZEA

Pertsona orok du kalitate oneko oinarrizko zerbitzuak jasotzeko eskubidea; esate baterako, ura, saneamendua, energia, garraioa, finantza-zerbitzuak eta komunikazio digitalak. Beharra dutenei zerbitzu horiek eskuratzeko laguntza eman behar zaie.



Entitateen % 25,1ek ESEZ 20 erdiesteko bidean laguntzen du.


Nagusiki, erakundeak garapenerako nazioarteko lankidetzan aritzen dira (% 100) eta bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzte (% 78,4).

Nabarmendu beharreko datu batzuk:

- Erakundeen % **19,6k** lau ESEZ erdiesteko bidean laguntzen du.
- **Batez beste**, erakundeek **ia bost ESEZri** erantzuten diete (4,9).
- Erakundeen % **1,3k** ikerlan honetan hautatutako **ESEZ guztiak** erdiesteko bidean laguntzen du.
- EHSSk hiru ESEZ hauetan **laguntzen du gehien**: aukera-berdintasuna (% 100), haurrei laguntza eta babesa (% 60,9), eta hezkuntza, trebakuntza eta ikaskuntza jarraitua (% 60).
- EHSSk hiru ESEZ hauetan **laguntzen du gutxien**: etxebizitza eta laguntza etxerik ez dutenentzat (% 18,5), gutxieneko errenta (% 18,7) eta desgaitasuna dutenen inklusioa (% 20,2), arlo horretan diharduten erakundeak oso espezifikoak baitira.



2. infografia. EHSSren ekarpena ESEZri



Iturria: geuk egina (2024)

6. EHSS-REN ERANTZUNAK GJH-EI

Txostenaren atal honetan, EHSSren jarduera aztertuko da, GJHei nola erantzuten dien aintzakotzat hartuta. Horretarako, bi ariketa egin dira: EHSSren jarduerarekin lotuta dauden GJHak hautatu dira, eta, gero, 2021eko barometroaren datuak aztertu eta erakundeek erantzun-maila identifikatu da, GJH horietako bakoitzaren aurrean.

Jada adierazi den bezala, 17 helburuk eta 169 xedek osatzen dute 2030 Agenda: bateraturik daude, ezin dira zatitu, irismena mundu-mailakoa da eta aplikazio unibertsala dagokie.

3. irudia. GJHen laburpena



Iturria: Google irudiak (2023)

Azterketan, EHSSren jarduerarekin zuzeneko erlazioa duten helburuetan jarri da arreta, eta jarduera horrekin zer erronka sozialean laguntzen duen ere aztertu da. Zehatz-mehatz, 17 GJHetatik **10 helburu** aukeratu dira:

- **1. HELBURUA:** pobrezia desagerraraztea
- **2. HELBURUA:** goserik ez
- **3. HELBURUA:** osasuna eta ongizatea.
- **4. HELBURUA:** kalitatezko hezkuntza
- **5. HELBURUA:** Genero-berdintasuna
- **8. HELBURUA:** lan duina eta hazkunde ekonomikoa
- **10. HELBURUA:** desberdintasunak murriztea
- **11. HELBURUA:** hiri eta komunitate jasangarriak
- **16. HELBURUA:** bakea, justizia eta erakunde sendoak
- **17. HELBURUA:** helburuak lortzeko aliantza

Nahiz eta EHSSko erakundeek zuzeneko edo zeharkako ekarpena egin dezaketen jasangarritasunarekin eta ingurumenarekin lotutako helburuetan, jarraian datorren azterketak goiko 10 helburu horietan egindako ekarpenetan jarriko du arreta. Helburu sozialak dira, eta erakundeek horiek erdiesten lagundu dezakete beren jardueraren bidez, zerbitzuak emanez edo eragin soziala bideratuz.

Hautatu diren GJHeekin eta xedeekin, azterlanean parte hartu duten erakundeetako bakoitzaren jarduera modu espezifiko eta xehean aztertu da, GJH horietako bakoitzarekin lotutako

kategorietan sailkatzeko. Hala, honelako datuak aztertu dira: jarduera-eremua, artatzen den kontingentzia, erakundeen jardueraren kolektibo hartzailea, ematen dituzten zerbitzuak eta eragin sozialarekin lotutako jarduerak. EHSSko erakundeek GJH horiei emandako erantzuna aztertzeko, ikertzaile-taldeak printzipioen adierazpenaren interpretazio-ariketa sistematikoa egin du. Aldi berean, EHSSren datu diagnostikoen berrirakurketa gidatu duten irizpide orokorrak finkatu ditu, eta, era horretan, erakundeen jardueraren azterketa xehea bideratu dute. Abiapuntu horrekin, osagai jakin batzuk identifikatu dira, eta interpretazio-ariketaren bitartez, erakundeen jarduera *birkokatu* egin da GJHen esparrua baliatuz.

Jarraian jaso diren datuak HSSEBren datuekin egindako azterketa kuantitatiboaren emaitza dira. Datuak 2021eko barometroaren lan-prozesuan zehar bildu ziren, eta EHSSko erakundeek hautatu diren GJH bakoitzari nola erantzun dioten ikusteko balio dute, aurretik finkatutako irizpideetan eta helburu bakoitzerako ezarri diren xedeetan oinarrituta. Aukera dagoenean, 2021eko barometroaren datuak adierazi dira, GJHei emandako erantzunaren datuarekin koherentzia ote dagoen ikus baitaiteke modu horretan.

1. GJHa: POBREZIA DESAGERRARAZTEA

Mundu osoan pobrezia-modu guztiekin amaitzea. Erronka nagusia muturreko pobrezia desagerraraztea da.

GJH hau aztertzeko, **xede** hauei erantzutea kontuan hartu da:

- Pobrezia-egoeran bizi diren pertsonak gutxiago izatea.
- Muturreko pobrezia desagerraraztea.
- Pobrezia- eta zaugarritasun-egoeran daudenentzako babes sozialaren estaldura handia lortzea.
- Pobrezia-egoeran daudenek oinarritzko zerbitzuak jasotzeko eskubide berak dituztela bermatzea.
- Pobrezia- eta zaugarritasun-egoeran daudenen esposizioa murriztea klimarekin lotuta dauden muturreko fenomenoekiko.



Entitateen % 38,4k 1. GJH erdiesteko bidean laguntzen du.

Nagusiki, erakundeak garapenerako nazioarteko lankidetzan (% 92,7), enpleguan (% 82,1) eta gizarte-zerbitzuetan (% 46,2) aritzen dira, eta bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak (% 97,1) edo babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan daudenak (% 46,7) artatzen dituzte. Gainera, GJH horri neurri handienez erantzuten diotenak erakunde handiak edo oso handiak dira (300.000 €-tik gorako diru-sarrerak).


Datu hori bat dator 2021eko barometroaren datuekin. Horien arabera, erakundeen % 31,1k bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen ditu, eta, zehazki, erakundeen % 12,8k etxerik ez duten pertsonak artatzen ditu.

2. GJHa: GOSERIK EZ

Herritar guztiek, zaurgarrienek bereziki, elikadura nutritiboa, osasungarria eta nahikoa eskuratzen dutela ziurtatzea.

GJH hau aztertzeko, **xede** hauei erantzutea kontuan hartu da:

- Malnutrizio-forma guztiekin amaitzea, obesitateari ere erreparatuz.
- Pobrezia- eta zaurgarritasun-egoeran daudenek, urtebetetik beherako haurrek bereziki, elikadura osasungarria, nutritiboa eta nahikoa urte osoan eskuratzen dutela ziurtatzea.



Entitateen % 16,3k 2. GJH erdiesteko bidean laguntzen du.


Goserik ez helburuan gehien laguntzen duten erakundeek garapenerako nazioarteko lankidetzan (% 59,6) eta gizarte-zerbitzuetan (% 25,2) lan egiten dute, eta bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzte (% 65,5). Eskuarki, boluntario eta ordainpeko langile asko dituzte, eta aurrekontu handia.

3. GJHa: OSASUNA ETA ONGIZATEA

Bitzita osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea adin guztietako pertsona guztientzat.

GJH hau aztertzeko, **xede** hauei erantzutea kontuan hartu da:

- Buruko osasuna eta ongizatea sustatzea.
- Substantzia adiktiboen gehiegizko erabilera prebenitzea.



Entitateen % 45ek 3. GJH erdiesteko bidean laguntzen du.

GJH horri neurri handienez erantzuten diote osasungintzan (% 100) eta gizarte-zerbitzuetan (% 76,6) diharduten erakundeek eta, kontingentziari dagokionez, mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen (% 90,7) edo desgaitasuna duten (% 78,9) arreta ematen dietenak.

Datu hori eta 2021eko barometroaren datuak bat datoz. Horiei jarraikiz, erakundeek % 17,7k buruko osasun-arazoak dituzten pertsonak artatzen ditu; % 17,3k, gaixotasunak dituztenak; eta % 9k, adikzio-arazoak dituztenak.

4. GJHa: KALITATEZKO HEZKUNTZA

Kalitate oneko hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatzea, eta pertsona guztientzako ikaskuntza-aukera jarraituak sustatzea.

GJH hau aztertzeko, **xede** hauei erantzutea kontuan hartu da:

- Neska guztiek eta mutil guztiek lehen eta bigarren hezkuntza bukatzen dutela ziurtatzea.
- Kalitate oneko goi-mailako trebakuntza tekniko eta profesionala berdintasunez eskuratzen dela ziurtatzea, baita unibertsitate-irakaskuntza ere.
- Enplegua, lan duina eta ekintzailatza lortzeko beharrezko gaitasunak dituzten gazte- eta heldu-kopurua nabariki handitzea.
- Genero-desparekotasunak desagerraraztea hezkuntzan, eta desgaitasuna dutenek eta zaurgarritasun-egoeran dauden haurrek irakaskuntza eta trebakuntza profesionala berdintasunez eskuratzen dutela ziurtatzea.
- Ikasle guztiek garapen jasagarria sustatzeko beharrezko ezagutza teoriko eta praktikoak eskuratzen dituztela ziurtatzea.
- Indarkeriarik gabeko ikaskuntza-ingurune seguruak, inklusiboak eta eraginkorrak eraiki eta egokitzea, bizitza osoan zeharreko ikaskuntza-inguruneak ere kontuan hartuta.



Entitateen % 60,3k 4. GJH erdiesteko bidean laguntzen du

GJH horri proportziorik handienean erantzuten diote aisialdian (% 96,1), enpleguan (% 76,3), garapenerako nazioarteko lankidetzan (% 66,8) eta gizarte-zerbitzuetan (% 67,9) diharduten erakundeek. Eta, orobat, babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen arreta ematen dietenek (% 90,4), bai eta bazterkeria-egoeran edo -arriskuan daudenak artatzen dituztenek ere (% 70,3). Berriz ere, erakunde handiak dira, bai ordainpeko langileen kopuruari, bai baliabide ekonomikoei begira.


Datu hori bat dator 2021eko barometroaren datuarekin, zeinaren arabera erakundeek % 42,9k heziketan eta aisialdian gauzatzen duen bere jardueraren zati bat, eta % 51,3k, berriz, trebakuntza-eta heziketa-zerbitzuak ematen ditu, zerbitzu nagusia edozein izanik ere.

5. GJHa: GENERO BERDINTASUNA

Sexuen artean berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahaldundzea.

GJH hau aztertzeko, **xede** hauei erantzutea kontuan hartu da:

- Emakumeen eta nesken aurkako diskriminazio-forma guztiekin amaitzea.
- Emakume eta neska guztien aurkako indarkeria-forma guztiak desagerraraztea.
- Erantzukidetasuna sustatzea etxean eta familian.
- Emakumeen partaidetza osoa eta benetakoa ziurtatzea, baita aukera-berdintasuna ere.



Entitateen % 48,6k 5. GJH erdiesteko bidean laguntzen du.

Batik bat, garapenerako nazioarteko lankidetzan (% 68,8) eta sozial-zeharkakoan (% 58,2) aritzen diren erakundeak dira, eta bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak (% 79,8) edo babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan daudenak (% 59,8) artatzen dituzte.


Datu hori bat dator 2021eko barometroaren datuekin. Horien arabera, erakundeek % 49,7ren jarduerak emakumeak ditu hartzaile, neurri batean behintzat.

8. GJHa: LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

Hazkunde ekonomiko iraunkor, inklusibo eta jasangarria, enplegu oso eta emankorra, eta guztiontzako lan duina sustatzea.

GJH hau aztertzeko, **xede** hauei erantzutea kontuan hartu da:

- Enplegu duina lortzea pertsona guztientzat, eta ordainsari berdina balio bereko lana egiteagatik.
- Enplegatuta ez dauden eta ikasten ari ez diren gazteen proportzioa murriztea.
- Lan-eskubideak babestea eta lan-ingurune seguruak eta arriskurik gabeak sustatzea.



Entitateen % 16,7k 8. GJH erdiesteko bidean laguntzen du.

Jarduera-eremuari erreparaturik, enpleguan (% 100) eta gizarte-zerbitzuetan (% 35,1) dihardute batez ere 8. GJH erdiesteko bidean gehien laguntzen duten erakundeak. Gainera, bide horretan dauden erakundeek desgaitasuna duten pertsonak (% 43,7) eta bazterkeria-egoeran edo -arriskuan daudenak (% 29,3) artatzen dituzte; ordainpeko 100 langile baino gehiago dituzte lantaldeetan (% 63,5).

Datu hori 2021eko barometroaren datutik hurbil dago. Horri jarraituz, EHSSko erakundeek % 18,4k enpleguan lan egiten du, neurri batean bederen.

10. GJHa: DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA

Herrialdeen arteko eta herrialdeetako desparekotasunak murriztea.

GJH hau aztertzeko, **xede** hauei erantzutea kontuan hartu da:

- Pertsona guztien inklusio soziala, ekonomikoa eta politikoa indartzea eta sustatzea.
- Pertsona guztien aukera-berdintasuna bermatzea.
- Zerga- eta soldata-politikak eta babes sozialeko politikak ezartzea berdintasun handiagoa lortzeko. Pertsonen migrazio eta mugikortasun ordenatuak, seguruak, arauzkoak eta arduratsuak erraztea.



Entitateen % 100ek 10. GJH erdiesteko bidean laguntzen du.


EHSSko erakundeek interes orokorra eta pertsona guztien eskubideen defentsa bultzatzen dute. Arreta berezia jartzen dute zaugarritasun handieneko egoeretan dauden arretan, jarduera-eremua, artatzen den kontingentzia, kolektibo hartzaileak edo jarduera zehatza aldera batera utzita. EHSSLren arabera, zaugarritasun-arriskuan edo -egoeran dauden kolektiboei eragiten dieten desparekotasunak murrizteko egiten dute lan, nola zuzeneko esku-hartzearen bidez (zerbitzuak ematea) hala sentsibilizatu, eskubideak sustatu eta salatzeko ekintzen bidez.

11. GJHa: HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK

Hiriak eta giza kokalekuak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izan daitezen lortzea.

GJH hau aztertzeko, **xede** hauei erantzutea kontuan hartu da:

- Pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egokiak, seguruak eta arrazoizkoak eskuratu ditzaketela ziurtatzea.
- Hirigintza inklusiboa, partaidetzazkoa eta jasangarria areagotzea.
- Kultur eta natur ondasuna babestea eta zaintzea.
- Inklusioa, baliabideen erabilera efizientea, klima-aldaketa arintzea eta horretara egokitzea, eta hondamendien aurrean erresiliente izatea sustatzeko politikak eta planak ezarri eta implementatzen dituzten hiri eta herrien kopurua handitzea.
- Berdeguneetarako eta espazio publiko seguru, inklusibo eta irisgarrietarako sarbide unibertsala eskaintzea, batez ere emakumeentzat, haurrentzat, adineko pertsonentzat eta desgaitasuna duten pertsonentzat.



Entitateen % 68,2k 11. GJH erdiesteko bidean laguntzen du.

Jarduera-eremuari erreparatuz, aisialdian (% 92,2) eta gizarte-zerbitzuetan (% 87,2) dihardute batez ere GJH hau erdiesteko bidean gehien laguntzen duten erakundeek. Gainera, desgaitasuna duten pertsonak (% 93,2) edo mendekotasun-egoeran edo -arriskuan daudenak (% 68,6) artatzen dituzte batez ere.

16. GJHa: BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK

Gizarte baketsu eta inklusiboak bultzatzea garapen jasangarrirako, herritar guztientzat justiziarako sarbidea erraztea eta erakunde eraginkor, arduratsu eta maila guztietan inklusiboak sortzea.

GJH hau aztertzeko, **xede** hauei erantzutea kontuan hartu da:

- Haurren kontrako tratatu txarrak, esplotazioa, salerosketak eta indarkeria- zein tortura-forma guztiak amaitzea.
- Maila guztietan erabaki inklusiboak, partaidetzazkoak eta ordezkagarriak hartzen direla bermatzea.



Entitateen % 49,1ek 16. GJH erdiesteko bidean laguntzen du.

Jarduera-eremua aintzakotzat hartuta, 16. GJH erdiesteko bidean gehien laguntzen duten erakundeek garapenerako nazioarteko lankidetzan (% 97,5), gizarte-zerbitzuetan (% 79,2) eta aisialdian (% 69,3) lan egiten dute batez ere. Halaber, halaxe dihardute babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak (% 76), bazterkeria-egoeran edo -arriskuan daudenak (% 75,3) eta desgaitasuna dutenak (% 65) artatzen dituzten erakundeek.

17. GJHa: HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA

Aliantzak finkatzea eragileen artean: gobernuak, sektore pribatua eta gizarte zibila. Hartara, Agenda berria haien guztien politiken eta jardueren erdigunean kokatzea.

GJH hau aztertzeko, **xede** hauei erantzutea kontuan hartu da:

- Interesdun askoren arteko aliantzak, zeinek ezagutzak, espezializazioa, gaitasuna sortzea, teknologia eta finantza-baliabideak mugitu eta trukatzeko dituzten, GJHak erdiesten laguntzeko.
- Aliantza eraginkorrak eratzea esfera publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilarenean.
- Garapen jasangarrian egiten diren aurrerabideak neurtzeko balio duten adierazleak prestatzea.



Entitateen % 86k 17. GJH erdiesteko bidean laguntzen du.

Gehienbat, gizarte-zerbitzuetan (% 91,1), garapenerako nazioarteko lankidetzan (% 90) eta enpleguan (% 89,7) lan egiten dute. Artatzen den kontingentziaren ikuspegitik, gehiengoa dira mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak (% 95,8) eta bazterkeria-egoeran edo -arriskuan daudenei (% 91,3) arreta ematen dietenak.


Datu hori 2021eko barometroaren datuekin bat dator; izan ere, datu horiek adierazten dute erakundeek % 43,7 elkarriketan aritzen dela sektore publikoarekin eta beste eragile batzuekin, eta % 62,8 antzeko entitateekin gogoeta- eta informazio-espazioak partekatzen diren sareen parte da.

Nabarmendu beharreko datu batzuk:



- Erakundeen % **18k bost GJH** erdiesteko bidean laguntzen du.
- **Batez beste**, erakundeek **bost GJH**ri erantzuten diete gutxi gorabehera (5,2).
- Erakundeen % **1,4k** ikerlan honetan hautatutako **GJH guztiak** erdiesteko bidean laguntzen du.
- EHSSk **ekarpen handiena** hiru GJH hauetan egiten du: desberdintasunak murriztea (% 100), helburuak lortzeko aliantza (% 86) eta hiri eta komunitate jasangarriak (% 68,2).
- EHSSk **ekarpen txikiena** hiru GJH hauetan egiten du: pobrezia desagerraraztea (% 34,6), hazkunde ekonomikoa (% 16,7) eta goserik ez (% 16,3). GJH horien xedeei erantzuten dieten erakundeak oso espezializatuta daude eremu horretan.

3. infografia. EHSSren ekarpena GJHei



Iturria: geuk egina (2024)

7. EHSS-REN GOGOETA INTERPRETAZIO ESPARRUEI BURUZ

Adierazi den bezala, esparru batek zentzua ematen dio egoera edo gai bati, egoera edo gai horren alderdi jakin batzuk *hautatu* eta lotu egiten baititu. *Esparru batean kokatzea*, hortaz, gai bat eta horren gaineko elementu jakin batzuk lotzeko jarduera da, beste alderdi batzuk baztertu edo garrantziaren bigarren mailan kokatzen diren artean.

Ikuspuntu horretatik, ESEZren eta GJHen interpretazio-esparruak EBk eta NBEk hurrenez hurren bultzatutako ekintza-ereduetan gauzatu dira, eta gai bati zentzua emateko aukera ematen dute: erronka sozialak. Hala, erronka horiek elementu eta apustu zehatzekin lotzen dira. Alde horretatik, EHSSren jarduera azaltzeko aukera ematen duten esparruak dira. EHSSko erakundeek lana eta errealtatearekin duten konexioa ikusgai egiteko ahalmena dute, eta, oro har, EHSSk eraldaketa sozialeko eragile gisa duen rola.

Landa-lanaren prozesuan erakundeekin egin diren eztabaida-taldeetan ahalmen hori, ahalmenak dakartzan zailtasunak eta eskaintzen dituen aukerak ulertzeko ariketa bideratu nahi izan da. Bi interpretazio-esparruak EHSSren jarduerari eta identitateari buruzko bestelako narratiba bat sortzen lagundu dezaketen eskemak dira. Haatik, erakundeei zer dakarkieten ulertu behar da lehenik.

Jarraian, EHSSko entitateak ESEZrekin eta GJHeekin lotuta bizitzen ari diren zenbait konturen garrantziari buruz hausnartuko da, alderdi hauen harira:

- Erakundeetan izaten ari diren harrera.
- Interpretazio-esparru horiek hurbildu, ezagutu eta txertatzeko prozesua.
- Identifikatu diren zailtasunak.
- Bi esparruek eskaintzen dituzten aukerak.
- Entitateetan kezka pizten duten elementuak.
- ESEZ eta GJHak hedatzea erraztuko luketen ekintzak.

7.1. Zer harrera izaten ari dira ESEZ eta GJHak EHSSko erakundeetan?

Nazioarteko erakundeek bultzatutako esparruak diren heinean, ESEZ eta GJHak modu desberdinean joan dira sartzten EHSSko erakundeetan. GJH eta 2030 Agenda oso ezagunak dira; ESEZ askoz neurri txikiagoan sartu da, ordea.

Entitateen artean, GJHei eta 2030 Agendari buruzko **informazio-iturri** nagusia administrazio publikoa izan da. Halaber, Sareen Sarearekin egindako lan-prozesuen bitartez ere informazioa jaso dute, partaide diren sareen bidez edota zeharka, EHSSko entitateekin egindako bileretan edo proiektuak eta/edo jarduera-eremua partekatzen dituzten enpresekiko bileretan. Informazioa foroen, jardunaldien, webguneen edota hainbat erakunde eta entitaterekin memorien bidez jaso dute.

Erakundeen esanetan, prozesua 2019 eta 2021 artean hasi zen, entitatearen arabera. Dirudenez, entitate handienak txikiak baino lehenago hasi ziren informazioa jasotzen, baita boluntarioz soilik osatutakoak ere. Segur aski, sare zabalagoa dutelako eta harreman arina dutelako beste eragile batzuekin.

Erakundeak ados daude, Euskadin GJHak hainbat mailatan hedatu eta txertatzeko abian den **apustu politikoa** dela eta. Funtsean, administrazio publikoa ari baita sustatzen esparru berri hori ikusgai izatea, hedatzea eta txertatzea. Lankidetzeta edo elkarlan publiko-sozialeko prozesuak abiarazi eta/edo mantentzeko orduan, gero eta ohikoagoa da justifikatzea nola eta zer neurritan dauden GJHak entitateen plan, proiektu eta programetan sartuta, EAEn, estatuan edo Europa mailan.

Oro har uste da GJHak **landuago daudela estatu-federazioen eta sareen mailan**, prestasun eta malgutasun handiagoa baitute barneko trebakuntza eta gogoetarako zein ikaskuntza-espazioetara joateko. Gainera, EHSSko sareen helburuetako bat da sektorea erreferentziazko eragile soziala izatea eta identitate, helburu eta diskurtso partekatuak ematea euskal ekimen sozialari. Hala, aliantzak ehundu nahi dira beste eragile sozial, politiko eta instituzional batzuekin. Horrenbestez, horrelako prozesuetan parte hartzeko interesa eta gaitasuna dute, berdin du prozesuak barnekoak edo kanpokoak diren.

Sareen rolaren beste adibide bat Sareen Sareak EHSSri buruz prestatu duen dokumentua da²⁰, batetik, zeinean EHSSren ekarpena eta jarrera jorratzen baitira 2030 Agendaren eta GJHen aurrean. Bestetik, Euskadiko Buru Osasunak azterlan hau kaleratu du: *Buru osasuna Euskadi Federazioko elkarteak eta Garapen Jasangarrirako Helburuak*²¹. Bere elkarteekin batera eta Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken Sailaren laguntzarekin prestatu du.

GJHak entitateen agenda jardueraz betetzen ari direlako sentrazioa orokorra da: informazioa jaso, jardunaldietarako gonbidapenak, webguneko edukiak eta memoria egokitzea GJHekin bat etortzeko... Erakundeen agendan duten presentzia kanpoko eskaera baten gisara hautematen da batez ere, hots, erakundeetan GJHak txertatu eta lantzeko eskaera baten gisara. Hala, ez da hainbeste ikusten sektorearen jarduerara egindako GJHen hurbilpen adeitsu gisa. Ados daude ezen balitekeela entitate txikienak, alegia, ordainpeko langile gutxien dituztenek edo boluntarioz soilik osatuta daudenek edo aurrekontu txikiak dituztenek, zailtasun gehiago edukitzea gogoeta- eta trebakuntza-espazioetan parte hartzeko, lantalde txikiagoak dituztelako eta gai horretan aritzeko denbora gutxiago dutelako nagusiki.

Nolanahi ere, badirudi 2030 Agenda errazago txerta daitekeela entitateen koordinazio-, gerentzia- eta zuzendaritza-espazioetan. Era berean, norabide hori zirimiri bilakatu eta beste lan-espazio batzuetan sartzea da kezka, nola bideratu GJHen barruko lana lantaldeetan, nola lortu zentzua izatea eta inspirazio gertatzea profesionalentzat eta boluntarioentzat.

2030 Agendan trebatzeko prozesu baten ostean, GJHen ezagutza eta txertaketan jada ibilbidea egin duten entitateak ohartu ziren GJH kopuru handi batean ekarpena egiten ari zirela GJHak

²⁰ Dokumentua hemen dago: <https://sareensarea.eus/eu/euskadiko-hirugarren-sektore-soziala-eta-2030-agenda/>

²¹ Dokumentua hemen dago: <https://consaludmental.org/sala-prensa/estudio-ods-salud-mental-euskadi/>

adierazi baino askoz lehenagotik, beren jardueraren bidez eta kolektibo hartzaileei emandako zerbitzu eta/edo baliabideen bitartez. Ematen du elementu giltzarria dela hori, entitateekiko gogoetan: GJHen interpretazio-esparruaren atzean, EHSSko erakundeak aspalditik garatzen eta bultzatzen ari diren edukiak eta apustuak daude.

ESEZren kasuan, erakundeek eta sareek askoz **interpretazio-esparru ezezagunagoa** dela uste dute, entitate handiagoei eta ibilbide luzekoek izan ezik: beren jarduera-eremua dela eta, Europako finantzazioa bilatzen dute edo proiektuak dituzte Europa mailan. Nabarmentzekoa da enpleguan eta desgaitasuna duten pertsonekin lan egiten duten entitateek hizkuntza erkidea ematen duen tresna gisa baliatzen dutela ESEZ, Europako Batzordeari jarraitu beharreko ildoen berri emateko. Alde horretatik, beren politikekin ez ezik, ESEZn ezarritako eskubideekin ere saiatzen dira helburuak lerratzen. Zehaztu dute esparru horrek ez duela zuzeneko eragina haien egunerokoan, baina eragina ikusten da legeria nazionallean eta Europako proiektuen ibilbidean.

Oinarritzko erakundeen artean, ESEZ ezezagunagoa da, jatorritik hasi eta garapenarekin buka. Are gehiago, GJHei lotzen da oker; ez da izaera propioa duen interpretazio-esparru baten modura ikusten. Gehienbat gertatzen da ESEZri buruzko informazioa ez delako 2030 Agendari buruzkoa bezainbeste hedatu eta ez duelako halako irismena izan. Nahiz eta esfera batzuetan aipatu eta ezaguna izan, ez da ESEZren esparruan sakondu eta ez dira garatzeko aukerak identifikatu. Oro har, GJHena baino formatu konplexuagoa duela uste da, eta ez hain erakargarria. ESEZ gutxi edo batere ezagutzen ez duten erakundeen artean, zalantzak daude zein ote den interpretazio-esparru horren aldeko apustu politikoa, zer eragile interpelatzen dituen zuzenean, zer dakarkien eguneroko lanean eta EHSSko entitateen jardueran mailaz maila txertatzeko aukera ote dagoen.

7.2. Nolakoa izaten ari da hurbildu, txertatu eta jarrera hartzeko prozesua?

Erakundeek aditzera eman dute ESEZren printzipioak eta GJHei finkatutako xedeak eta helburuak ez direla ezezagunak, baizik eta entitateak lantzen ari direla aspalditik. Erakundeen artean ideia orokorra da bi interpretazio-esparruek sektoreko erakundeen misio, ikuspegi eta balioen baitako gaietara jotzen dutela. Orobat, esparru horiek gaiak argi adierazten dituzte, jomugak zehazten dituzte eta partekatu bihurtzen dituzte.

ESEZren kasuan, ezezaguna denez oro har, ezin izan da entitateen agendan txertatu. Beraz, ez dira identifikatzen txertatzeko eta jarrera hartzeko prozesu argiak. 2030 Agendari dagokionez, egoera bestelakoa da, erakundeetan dagoen ezagutza-mailagatik. GJHen harira, **hurbildu, txertatu eta jarrera hartzeko** prozesuan daude, eta argi eta garbi bereizitako **ekintzak** identifikatzen dira.

4. infografia. Hurbildu, txertatu eta jarrera hartzeko prozesua



Iturria: geuk egina (2024)

Lehen fasea **hurbiltzea** da, eta hasierako trebakuntza-saioak ditu ezaugarri, 2030 Agenda eta xedeak ezagutzeko. Esparrua ezagutu eta gero, sektoreko beste entitate eta sare batzuekin trukea gertatzea ohikoa da, hedapen-espazioen eta topaguneen bidez. Jarraian, GJHak entitatearen misio, ikuspegi eta balioekin identifikatu eta erlazionatzeko prozesua gertatzen da, esparruaren eta entitatearen arteko lotura bilatzeko.

Ondoren, **txertatzeko** fasea da bigarren. Fase horretan, barne-gogoeta gertatzen da: entitatearen jarduerarekin lotuta egon daitezkeen GJHak identifikatzen dira edo GJH jakin batzuekin zerikusia izan dezaketen jardura edo proiektu zehatzak gauzatzen dira. Hori da GJHen eta entitatearen jardueraren arteko lotura zuzenekoena. Zenbaitetan, adierazleak sortzeko prozesua gertatzen da aldi berean, 2030 Agendaren betetze-mailaren jarraipena egin ahal izateko. Ariketa hori ez dago entitate guztien eskura, gogoeta eta ondoko lan handia behar delako. Entitateentzat, helburua ez da inpaktua edukitzea GJH guztietan, ezta erakundeetan lan-arlo edo *nitxo* berriak sortzea ere, baizik eta hausnartzea eta jarduerarekin zuzenean lotuta dauden GJHak identifikatzen jakitea. Horrek ez du eragozten GJH batzuk entitate osoan zeharkakoak direla identifikatzea, haren konpromiso sozialaren ondorioz.

Hirugarrenik, **jarrera hartzeko** faseak askotariko ekintzak biltzen ditu. Alde batetik, narratiba lantzen da: hizkuntza partekatua bilatzen da beste eragile batzuekin sinergiak ezartzeko, entitate bakoitzaren interes-taldeetan hedapen-ekintzak egiteko eta inpaktu sozialari begirako narratiba sortzeko, zeina hainbat hedabidetan (memoriak, buletinak, sare sozialak...) heda

daitekeen gero, entitatearen interes-taldeekin partekatzeko. Beste aldetik, jarduerak diseinatzen dira entitatearen plan estrategikoarekin eta kudeaketa-planarekin bat etorrira. Aldi berean, trebakuntza-saio espezifikoak egin daitezke, baina ez da oso ohikoa erakundeen artean, heldutasun edo garapen aurreratua behar baitira GJHei eta 2030 Agendari buruzko gogoetan. Jarrera hartzeko fase horretan, sektorearen baterako lana susta daiteke, sinergiak ezarri, elkar identifikatu (EHSStik kanpo eta barruan) eta batera lan egiteko aukera ematen duen begirada partekatua eraikiz, sektorearen helburuak erdiesteko diskurtso partekatu batetik.

Amaitzeko, txertatu eta jarrera hartzeko prozesuetan egindako ekintzak alde batera utzita, erakundeek uste dute entitate bakoitzak **bakarkako lana** egin behar duela, baina, bestalde, **sektorearen baterako lanean** oinarritu behar dela. Lan partekatu horretan, gogoeta-espazioak sortzea eta jardunbide egokien zein ekimenen identifikazioa oso garrantzitsua da. Gainera, sareen rola ezinbestekotzat jotzen da baterako lana eta gogoeta sortzeko eta ekimenak hedatzeko. Esate baterako, bigarren mailako erakunde batek galdetegi bat diseinatu du sarean osatzen duten entitateen artean hedatu eta, hartara, zer ekintza garatzen dituzten edo garatu ditzaketen identifikatzeko, ez entitateek soilik, baizik eta hartzaileek ere bai, GJHetan laguntzeko eta jardueraren neurrirako adierazle-sistema bat finkatzeko.

7.3. Zer alderdi ari dira hedapena eta inplementazioa oztopatzen?

Esan bezala, ESEZ esparru ezezagunagoa da, eta, beraz, ez dago hain txertatuta erakundeetan. Horren eraginez, inplementazio-prozesuak gutxi dira, eta, horrekin batera, prozesu horiek bultzatzen edo oztopatzen dituzten elementu gutxiago identifikatu dira. GJHei ibilbide luzeagoa dute erakundeetan, ordea, eta entitateek zailtasun gehiago identifikatzen dituzte, askotariko eragileak interpelatzen dituztenak.

EHSSn oro har uste da nolabaiteko inprobisazioa eta azelerazioa gertatu direla. Txertatzeko prozesua azeleratu egin da kanpoko eta barruko trebakuntza-saioak aurretik eta modu ordenatuan egin gabe, eta denbora nahikorik gabe erakunde bakoitzak barneko gogoeta egiteko eta GJHak beren jardueran zer neurritan txerta daitezkeen eta horien aurrean zer jarrera hartu identifikatzeko. Gehien azpimarratu den zailtasuna izan da **entitateek nolako ziurgabetasuna bizitzen duten GJHen harira**. Argi daukate EHSSk zeregin garrantzitsua izan behar duela xede eta helburuei egiten dien ekarpenean. Hala ere, ez dute erakunde publikoen ibilbide-orria ezagutzen eta ez dakite zer ondorio praktiko eduki ditzakeen haien jarduera esparru horretan islatzeak eta esparru horretara egokitzeak.

Horri gehitu behar zaio 2030 Agenda txertatzeak gogoetarako eta lan-espazio espezifikoak garatzeko **denbora** eskatzen duela, baliatzen diren dokumentuak eguneroko jardunean kokatzea zaila delako. Aldi berean, erakundeen baitako lan-arloetako profesionalak inplikatzeko zaila dela diote. Langile gehienak zuzeneko arretako profesionalak dira oro har, eta zailtasun handiak dituzte gogoeta-prozesuak behar dituzten gai horiei denbora eskaintzeko. Horregatik, koordinazioa, gerentzia eta zuzendaritza dira gogoeta-espazioetan parte hartzen dutenak eskuarki. Eta erakundeetako esfera horiek egiten dute GJHekiko lotura-lan handiena.

Erakundeek oro har uste dute helburuak erdiesteko behar diren mekanismo eta baliabide guztiak mugitzea garestia dela oso, bai denborari, bai baliabide ekonomikoei begira. Alde horretatik, erakundeek jasagarritasun ekonomikoa eta jardueraren erritmoa kontuan hartu beharreko faktore garrantzitsuak dira.

Ibilbidea hasten ari diren erakundeetan oztopo suertatzen den beste elementu bat da nondik hasi eta nola ezagutu beste erakunde batzuen esperientziak, ibilbide posibleak ikusteko. Antza denez, ibilbidearen ikuspegia bakarkakoa izaten da batez ere, eta baliteke ahaleginak gainjartzen ari izana, baita lana bikoizten aritzea ere. Horri dagokionez adierazten da bakarkako lanak jauzi egin behar duela entitateek **sarean edo elkarlanean** jarduteko. Horretarako, elkarlana eta proiektu partekatuak sustatzen dituzten espazioak eta mekanismoak finkatu beharko lirateke.

Oro har uste da GJHak mundu-mailari begira idatzita daudela, askotariko testuingurutako askotariko eragileen bat egin ahal izateko. Halaber, **xede anbiziotsuak** finkatu direla uste da. Horren eraginez, **operatibizazioa** zaila da erakundeentzat, eta beren errealitate zehatzean kokatzeko zailtasunak dituzte. Hari horretatik, erakunde bakoitzaren testuinguruan kokatu eta errealitatean *lurreratzeko* ariketa egin behar dela adierazten dute, misioarekin eta jarduerarekin lotuz eta horizontea edo ibilbidea ezarriz. Horri gehitu behar zaio elementu horiek balioetsi, garatu eta neurtu ahal izateko entitate bakoitzak duen berezitasuna. Zehazki, hainbat aldagai daude tartean: tamaina, lantaldeetan ordainpeko langileak egotea edo ez, jarduera eta entitate gisa egindako ibilbidea. Izan ere, aipatzekoa da entitate gehienek oraindik ez dituztela 2030 Agendari ematen ari zaizkion erantzun-maila neurtzeko adierazle espezifikoak.

7.4. Zer aukera sortu ditzakete?

Bi interpretazio-esparruek sortu ditzaketen aukeren artean, **hizkuntza eta irizpide erkideak** finkatzea nabarmendu behar da, **sinergiak eta elkarlanerako espazioak** sortzeko mesedegarriak diren aldetik. Edukia modu zabalean adierazteak bat egitea eta neurri handiko atxikimendua dakar oso eragile sozial desberdinentzat, hurbileko hitzak eta herritarrekin zein beste eragile sozial batzuekin partekatzen den hizkuntza erabilita printzipio eta eskubideei buruz hitz egiteko, ESEZn bezala, edota helburu eta xede bateratuak eta mundu-mailakoak lantzeko, 2030 Agendan bezala. Biltzeko ahalmen hori eta kontzeptu partekatuak ibiltzea elkarlaneko lanerako aukeratzat ulertzen da, hots, **aliantza sendoak eta eraginkorrak** sortzeko saio gisa, erronka sozialei bi mailatan batera eta elkarlanean erantzuteko asmoz. Alde batetik, sektorearen barneko mailan, GJH edo ESEZko printzipio berberen erantzunean lanean ari diren erakundeek artean. Eta beste aldetik, sektoreen artean, erakunde publikoetako, enpresetako eta gizarteko askotariko eragileen artean.

Ados daude ESEZk eta GJHei duten ahalmenaren gainean, EHSSko erakundeak **eraldaketa sozialaren eragile** gisa ikusgai jartzeko gauza direlakoan. ESEZ eta GJHak onuragarriak izan daitezke EHSSren jardueraren narratiba aise uler eta parteka dezaten beste eragile sozial batzuek eta herritarrek oro har. Orobat, eraldaketa sozialean duten rola argi identifikatzeko aukera eman dezakete, hizkuntza erkidearen ondorioz, hain zuzen ere. Ikuspegiaren eta lan egiteko moduaren ezaugarriak zehaztasuna, espezifikotasuna, behar berriak detektatzeko gaitasuna eta berehalako erantzunak emateko malgutasuna dira. Eta era horretan joka dezakete

hainbat kolektiboren eguneroko errealitatek eta eskaeretatik gertu daudelako, hainbat gunetan sustraiturik daudelako eta entitatearen ibilbideak balioa eta ezagutza eskaintzen dituelako. Ahalmen hori komunikazio-tresnak sortzeko balia liteke bereziki. Horiek erabilita, jardueraren bitartez herritarrekin egiten duten lana eta duten konexioa agerian jar daiteke alde batetik, eta bestetik, beste eragile-mota batekiko harremana erraztu daiteke; adibidez, enpresa, administrazio publiko eta gizarte zibilarekiko harremana.

Hortaz, eraldaketa sozialaren eragile gisa ikusgarri egiteak beste **eragile sozial batzuek haren zereginari balioa ematea** ekar dezake. Adibidez, arriskuan eta/edo kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen arretari dagokionez jarraitu beharreko ildo estrategikoak beste eragile batzuei helarazteko, hau da, esku hartzeko ildo berriak eta ikuspegiak mikrotik makrora eramanez, etab. Horren adibide gisa erakunde ofizialei informazioa helarazteko ahalegina aipa daiteke, haien webguneak irisgarriak izan daitezen desgaitasuna duten pertsonentzat, zailtasun ekonomikoak dituztenentzat edota adinekoentzat.

Lana GJHen eta 2030 Agendaren bidez aditzera ematea lagungarria izan daiteke **EHSSren irudia homogeneizatzeko**. Hala, entitate bakoitzak zertan eta zer helburutan oinarrituta egiten duen lan errazago identifika daiteke beste sektore batzuentzat eta herritarrentzat oro har. Enpresek EHSS ez ezagutzea edo irudi partziala izatea (eta alderantziz) EHSS sustatzeko neurrien II. txostenean bertan aipatu zen (2021)²². Txostenean identifikatu zen enpresek sektorea ez ezagutzeak (jarduera, osaera, etab.) batera lan egiteko aukerak oztopatzen dituela edo, neurri batean ezagututa ere, sektore segmentatu eta polarizatu gisa duten irudiak berak oztopatzen ditu. Horregatik, ezagutzarekin batera, bestea aitortu behar da, hau da, sektore bakoitzak duen zeregina (soziala edo bestelakoa), eta bestearen baldintzak, ezaugarriak eta helburuak ulertzeko konpromisoa. Halaber, garrantzitsua da aurreiritzi edo alde aurreko ideia jakin batzuk gainditzeko joatea, adibidez, entitateen ongintzako irudi asistentziala. Ildo beretik, enpresak emaila gisa hautemateari utzi behar zaio, eta subjektu aktiboak direla ulertu.

Erakundeek sektorearen **identitate-alderdiak ikusgai jartzen eta indartzen** jarraitzeko aukera gisa ikusten dituzte ESEZ eta GJHak. Horren adibide argia da sektoreak aliantzen eta elkarlanaren bilaketan duen ibilbidea, erronka sozialei erantzun nahian. Era horretan lotuta geratzen dira 17. GJHa (helburuak lortzeko aliantza) eta sektoreak egiten duen lana. Hori erakusteko, hona hemen EHSSren zeregina ibilbidean zehar erabakigarria izan den zenbait kasu: enplegu-eskaintza publikoetan desgaitasuna duten pertsonentzat lekuak gordetzen direla bermatzea, enpresa pribatuetan lanpostu egokituak eskaintzea edota, hezkuntzan, trebakuntza-programa egokituak bermatu eta sortzea, desgaitasuna dutenek trebakuntza-ibilbide zabalagoa eduki dezaten eskura.

Sektorearen barneko begiradatik, aukerak identifikatzen dira bi planotan. Batetik, erakundeen barruko planoan, ESEZk eta GJHei ahalmena dute **esparru orientagarri** edo inspiratzaile gisa. Halatan, erakunde bakoitzaren baitan hausnartzeko aukera ematen dute, esparru horiek beren errealitatean zehazteko, misio eta balioekin lotzeko, planetan jasota dauden helburu, xede, eta

²² Txostena hemen dago: https://3seuskadi.eus/wp-content/uploads/2024/10/Informe_IMP_2021_eu.pdf

adierazleekin, etab. Lagungarria izan daiteke modu osoagoan eta zeharka lan egitea, erakundearen barruko koherentzia sendotzeko, orobat.

Bestalde, sektoreko erakundeek partekatzen duten planoan, GJHak bereziki EHSSren **ibilbide-orria adierazteko gidari ona izan** daitezke datozen urteoi begira, hots, lehentasun edo apustu partekatuen agenda bat. Horretarako, ibilbide-orriaren lidergoa finkatu egin beharko litzateke ezinbestean, eta jarraipena egin. Era berean, sareen zeregina funtsezkoa da, rol bateratzailea eta ordezkatzailea duen aldetik.

7.5. Zer elementuk eragiten dute kezka?

Halaber, erakundeak kezkatuta daude ESEZren edo GJHen tankerako interpretazio-esparruak garatzeak eragin ditzakeen zenbait elementurengatik.

Lehenik, entitateek badakite bai ESEZk, bai GJHek **xede eta helburu anbiziotsuak** finkatzen dituztela, horizonte hurbilean erdiesten zaila ere izan daitezkeenak. Jomuga partekatua izan daitezkeen arren, eta errealtate sozialei buruz neurri handiagoan sentsibilizatzen laguntzen badute ere, erakundeek tarte txikia ikusten dute xede eta helburuetan egin dezaketen ekarpenari dagokionez. Eta horrek nolabaiteko etsipena eta frustrazioa eragin ditzake.

Sektorearen beste kezka bat da ESEZk eta GJHek **ez dutela indar juridiko loteslerik**, eta eragile sozialen borondatean eta konpromisoan oinarrituta mantentzen direla. Horrek erantzun eta atxikimendu handiagoa egotea eragotz dezake, nola EHSSko entitateena hala beste eragile sozial batzuen. Horiek horrela, erantzuna desberdina izaten ari ote den planteatzen da, eragile sozial guztiak maila berean inplikatu gabe.

Etorkizuna ez dago argi, eta egingo den jarraipenari buruzko zalantzak daude, 2030 Agendaren kasuan bereziki. Ez da EHSSk ikuspegi eta/edo esparru berrietan lan egiteko apustua egiten duen lehen aldia, haien misioarekin, ikuspegiarekin eta balioekin konektatzen direlakoan. Halarik ere, entitateek kezka adierazi dute aurreko esparru batzuekin bizitakoarekin, azkenean aldi baterako kontua izan zirelako. Ondorioz, horien inguruan egindako lana indarra galtzen joan zen, eta erresistentziak sortu zitezkeen lantaldeetan, esparru berriak inplementatzeko aukeraren aurrean.

Orobat, 2030 Agendan jasota geratu ez diren zenbait alderdiri buruz kezkatuta daude; besteak beste, **kirola, kultura eta hizkuntza-aniztasuna**. Egiaz, entitateek berek ekarpen handia egiten dute horrelakoak garatzeko, eta oinarritzakoak iruditzen zaizkie hartzaileen integrazioa, kohesio soziala eta bizi-kalitatea sustatzeko eta, beraz, baita gizarte osoarenak ere. **Nazioarteko dimentsioak** ere kezka pizten du, GJHen hedapenak bezala garapen bidean dauden herrialdeetan. Alde horretatik, proiektuak ikuspegi partekatu batetik finkatzen hasteko beharra azpimarratzen da, ikus dadin 2030 Agenda garapen bidean dauden herrialdeetan hedatzea hurbileko errealtatean garatzea bezain garrantzitsua dela.

Era berean, entitateak kezkatuta daude **interpretazio-esparruak aplikagarriak ote diren esku hartzen duten errealitatean**, konplexutasunagatik eta aniztasunagatik. Askotariko errealitate sozialak jasotzen dira ESEZn eta GJHn. Alabaina, arazo jakin batzuk nekez sar daitezke esparru horietan, intersektionalak direlako, kausak ugariak direlako edo egiturazkoak direlako, eta, hala, helburu edo xede bati baino gehiagori dagozkien aldi berean. Nola heldu arazo zehatz horiei ikusezin ez gelditzeko, horra erakundeen beste kezka bat.

Interpretazio-esparruak erakundeetan bertan **aplikatu ahal izatea** dela eta, erakundeek desberdin identifikatzen dute. **Zenbait entitatearen aburuz, ez daude EHSSren ehun sozial osoaren eskura**. Erakunde bakoitzaren abiapuntua desberdina izan daiteke, eta hainbat faktore daude tartean; adibidez, ibilbidea, bolumen ekonomikoa, jarduera-eremua eta lantaldeen osaera. Denak ez dira berdin iristen ezagutza sortzeko espazioetara, lan-espazioetara eta baliabide ekonomikoetara. Hari horretatik, 2030 Agendaren inguruan EHSSn hainbat abiadura sortzea da kezka, zeinek distantzia eragin dezaketen erakundeen artean, baita sektorea polarizatzea ere. Haatik, adostasuna ez da orokorra: beste entitate batzuen ustez, entitate guztien eskura dauden esparru inspiratzaileak dira, elementu jakin batzuk eguneroko jardueran txerta baitaitezke hein batean edo bestean, antolaketa- eta plangintza-prozesuen bitartez.

2030 Agendari buruz, entitateek halako kezka adierazi dute **sailkaturik** geratzeko aukera dela eta. Ez daude eroso, baldin eta entitateak GJH zehatz baten arabera sailka badaitezke. Helburu guztiak lotuta daudela uste dute, eta ematen dituzten zerbitzuek ez diotela zertan helburu isolatu bakar bati erantzuten. Aitzitik, egoera jakin batzuk hobetzeko, ondoz ondoko ekintza asko behar dira, hainbat eremu behar dituztenak, eta, horrenbestez, hainbat GJHrekin zerikusia izan dezakete.

EHSSko entitateentzat, gai kezkagarrienetako bat honako hau da: **haien jarduera eta eragiten duen inpaktu soziala neurtzea**, ESEZrekin eta GJHeekin lotuta, baina baita modu orokorragoan ere. Batetik, entitate batzuek badakite neurketarako eta adierazleak eraikitzeke erresistentziak daudela EHSSn, kontrol-elementuekin lotu ohi direlako. Halaber, ez dira espezifikoa, ez dituzte sektorearen berezitasunak aintzakotzat hartzen edota kuantitatiboak dira soilik. Horri gehitu behar zaio orokortua den sententzia bat: baliabideak eta energiak neurketara eta inpaktura bideratzen direnean, eguneroko lana mantsotzen eta oztopatzen da, eta arreta benetan garrantzitsua den horretatik aldentzen da. Erakundeek orain arte dituzten tresnek ez dirudite espezifikoa eta, zenbait kasutan, ez dute alderdi jakin batzuk neurtzeko balio. Azpimarratzen dute, halaber, beste sektore batzuetan ez bezala, erakundeen datuak konparatzea zaila dela EHSSn, erakunde bakoitzaren jarduera espezifikoa delako, elkarlaneko espazioak finkatzen ez badira behintzat, adierazleak konparatzeko edo sistema erkide bat eratzeko.

Adierazleei dagokienez, erakundeek zailtasunak dituzte lan egiten duten errealitatean neurtu, aplikatu eta estandariza daitezkeen adierazleak definitzeko. Eskuarki, begien bistako alderdiei dagokienez ez dituzte hainbeste zailtza sortzen. Konplexuagoak edo abstraktuagoak direnek, berriz, kezka handiagoa pizten dute: *nola neur daiteke ikuspegi prebentiboa? Nola neur daiteke arriskuak eta kalteak murriztea? Eta elkartasuna?* Era berean, oro har uste dute zuzeneko inpaktua errazago neur daitekeela, baina: *nola neur daiteke zeharkako inpaktua? Nola neur daitezke alderdi kualitatiboak? Eta kontzeptu ukiezinak? Nola neur daiteke gizarte eta hezkuntza*

arloko esku-hartze baten ondorioz jada gertatzen ez dena? Kontuan hartu behar da artatzen den errealitatea aldakorra dela, eta behar batzuei erantzun ahala behar berriak agertzen direla. Beraz, denari erantzuten dion eta laster zaharkituta geratzen ez den neurketa-sistema bat finkatzea zaila da. Horregatik, etengabe aldatzen doan zerbait izan beharko litzateke, eta baliabideak mugitzea dakar.

7.6. Zer ekintzak erraztu dezakete interpretazio-esparruak hedatzea?

Erakundeekin bideratu diren gogoeta-espazioetan, ESEZ eta, batez ere, GJHak hedatzea erraztu edo bultzatzeko ekintza gisa identifikatu dituzte zenbait kontu.

Erakundeen kezken artean aipatu da GJHak eta ESEZ indar juridiko loteslerik gabeko esparruak direla eta norbere eta erakundeen borondatearen mende dagoela. Alde horretatik, esparru partekatuak direla bermatzeko bideak garatzea jomuga bat da. Eta, ekintza zehatz gisa, erakunde publikoek GJHei eta 2030 Agendari buruzko dokumentuak eta/edo gidak prestatu eta hedatzea nabarmendu da, eragile guztiek horien alde lan egin dezaketela ziurtatzeko, sinergiak ezartzeko eta errealitate sozial bakoitzera egokitzeko.

Begirada sektorean bertan jarrita, entitateek ezinbestekotzat jotzen dute, erakunde publikoek diseinatu eta heda ditzaketen gida orokorrak ez ezik, **GJHei buruzko gida espezifiko bat** ere prestatzea **EHSSrentzat**, eta ESEZrako ere bai, esparru horrek ibilbidea duen neurrian. Gida horretan jaso daitezkeen elementu batzuk ere aipatu dira: orientabideak, adierazleen bidez neurtzeko irizpideak, xede zehatzak eta hain helburu orokorrak entitateek lan egiten duten errealitateetan kokatzeko prozesu bereziak. Eta hori guztia sektorearen espezifikotasuna, hura osatzen duten erakundeen aniztasuna eta artatzen diren hartzaileena aintzakotzat hartuta.

Erakundeek nabarmentzen dute 2030 Agenda entitateetan **txertatzeko prozesuan laguntzeko kanpoko norbait egotea** interesgarria izango litzatekeela, erakundeetan eta, are, eragile sozialen artean gutxi-asko homogeneoak diren prozesuak sustatze aldera. Orientatzeko irizpide orokorrak kontuan izanik garatu liteke era horretan, aniztasuna errespetatuz, eta entitate bakoitzak interpretazio-esparruari buruz ulertzen duenak prozesuak baldintzatu gabe.

Horri erreparatuz, ekintza jakin batzuk egitea ontzat ematen da, esparruaren ondorioak ulertzeko trebakuntza eta orientabideak emango lituzketenak, eta orobat ulertzeko ESEZ eta GJHak txertatzeko prozesuak epe labur, ertain eta luzera zer eragin izango dituen entitateetan. Halatan, epe batzuk finkatu litezke prozesuan, edo nolabaiteko plangintza egin daiteke, entitateek tartea eduki dezaten ekintzak diseinatu, martxan jarri eta ebaluatzeko eta, horrez gain, prozesu horrek hartzaileen artean benetako zer inpaktu izango duen neurtu ahal izateko.

Gomendagarria iruditzen zaie **bildu eta elkarri entzuteko espazioak** sortzea, heterogeneoak, eta hainbat eragileren partaidetzarekin (gizarte zibila, administrazio publikoa, enpresak, EHSS...). Espazio horietan, esparruak zer ondorio izango dituen uler liteke, nola eta non lantzen ari den jakin, eta harremanak izaten eta elkarrekin lan egiteko aukerak detektatu, helburu erkideetan oinarrituta. Topagune horiek erakunde publikoek sustatzea positiboa litzatekeela

aipatu da, eta Euskadiko gizarte, enpresa eta erakundeen ehunean jada badauden nodo batzuk (elkarteak, elkargo profesionalak, sareak...) balia litezkeela horretarako. EHSSk iritzi ona du eragileen arteko zenbait topaguneri buruz, adibidez, Bizkaia Gararen Topaketa-Aliantzak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz eta GJHen aldeko Arabako Aliantza.

Eragile sozialen artean topaguneak sortzea aliantzak partekatu eta sortzeko sektorean bertan ere bideratu daiteke. Erakundeek uste dute elkarlaneko espazioak sortu litezkeela edo jada badauden beste batzuk baliatu, beste erakunde batzuk zertan ari diren jakiteko, garapen posibleak ikusteko, nolako hedapenak egin diren, nola diseinatu, inplementatu eta komunikatu diren, etab.

EHSSn irismena izan eta sartzeko, erakundeen barne-bizitzari buruz azpimarratu dute GJHei edo ESEZri buruzko informazioa identifikatu eta transmititzeko beheranzko prozesu bat lantzea ona izan daitekeela entitatearen barruan, alegia, erakundeetako lantaldeetan zirimiri gisa sartuko den prozesu bat, zuzendaritza- edo kudeaketa-espazioetan soilik txertatzen diren esparruak izan ez daitezen. Prozesu hori ahal den neurrian hartzailleak ere sartuz planteatzen da, helburuak eta xedeak haien artean ere partekatzeko. Horri dagokionez, ados daude horrelako prozesu batek denbora eta baliabideak beharko lituzkeela. GJHak hein handiagoan garatzeko, denbora libre utzi beharko litzateke entitateen baitan ere lan-espazioak sortzeko, hedatzeko prozesua diseinatu eta 2030 Agenda entitateen jarduera, zerbitzu eta hartzailen ezaugarrietara egokitze asmoz.

2030 Agendarekin bat etorritik, Euskadik gaur egun dituen erronka sozialekin lotutako proiektu eta ekintza-ildoen aldeko apustu handia egiten ari dira erakunde publikoak. EHSSko erakundeentzat, apustu horrek behar duen **inbertsio ekonomikoak** datozen urteotako ildo estrategikoekin lerrokatuta egon behar du, eta eremu sozialera bideratutako aurrekontuak indartu behar dira, baita eremu soziosanitariora, soziolaboralera eta abarrera bideratutakoak ere. Modu horretan, dagozkion esku-hartze sozialak hein handiagoan garatu ahalko dira.

ESEZren eta GJHen xedeak eta helburuak epe ertain-luzera finkatu dira. Hori dela bide, horien baitan garatzen diren proiektuen **finantzazio-esparruak** egonkorak izateko eta denboran zehar mantentzeko joera eskatzen da. 2030 Agenda txertatzeko finantzazio espezifikoa egotea desiragarria izango litzateke, eta, ildo berean, horrek EHSSren espezifikotasuna kontuan hartzea (identitatea, ezaugarriak...) eta eragileen arteko elkarlana sustatzea proiektu partekatuen bitartez. Hala, proiektuen aurreikuspen eta plangintza hobea bultzatuko litzateke, eta entitateek egonkortasun ekonomikoa izango lukete, eta proiektuen, zerbitzuen eta abarren jasangarritasunaren eta ibilbideen bermea.


Oro har, EHSSren aniztasuna EHSSrekin eta bereziki GJHekin lotuta abian jartzen diren prozesuetan aintzat hartzeko eskatzen da; esate baterako, trebakuntza-jardueretan eta finantzazio-iturriak eskuratzeko irizpideetan. Gai hori nolabaiteko ekitatearen bilaketarekin lotzen da. Era horretan, entitate txikiak, aurrekontu txikiak dituztenak edo boluntarioz soilik osatuta daudenak ez dira atzean geldituko. Zehatz-mehatz, entitate guztien ekitatea ziurtatzeko mekanismoak deialdi publiko edo pribatuetan txertatzea proposatzen da, tamaina kontuan

harturik (profesional-kopurua, boluntario-kopurua, urteko diru-sarrerak...), EHSSko entitate-mota guztientzako arrazoizko irizpide, epe eta baldintzak eskaintze aldera.

Erakundeek elkarlanean gehiago aritzeko interesa dute. Alabaina, haien esanetan, egiturek ez dute errazten **proiektu partekatuak garatu** ahal izatea. Dirulaguntzen deialdiek berek ez dute hori sustatzeko joera. Horrek aliantzak sortzea oztopatzen du, lehiakortasuna eragiten du entitateen artean eta baliabideak zatitzen ditu. Hala, oso helburu antzekoak dituzten bi edo hiru proiektu sortzen dira, proiektzio handiagoa izan dezakeen proiektu baten ordeztu, entitateen arteko elkarlanean oinarrituta.

Zehazki, EHSSko erakundeek eta beste eragile sozial batzuen arteko elkarlanari dagokionez — enpresa pribatuekin bereziki—, lehenago ere esan den bezala, EHSSren jarduera eta aniztasuna ez ezagutzeak elkarlan-espazioak eratzea eragozten du. Alde horretatik, enpresek eta EHSSko erakundeek elkar **ezagutzea eta errekonozitzea** oso garrantzitsua da, eta mapen, komunikazio-ekintzen, ikusgai jartzeko ekintzen eta abarren bidez susta liteke, helburu eta xede partekatuetan oinarriturik konektatu ahal izateko. Horren harira, sareen eta, zehazki, Sareen Sarearen zeregina erabakitzailea da, entitateak bildu eta konektatzeko egiten duen lanagatik.

5. infografia. EHSSren gogoeta interpretazio-esparruei buruz



Iturria: geuk egina (2024)

8. ONDORIO GISA: INTERPRETAZIO ESPARRUEN BALIOA

Txostenaren ondorio gisa, aztertu diren interpretazio-esparruen balio nagusizat identifikatu diren alderdiak jasoko dira azken atal honetan. Nahiz eta bi esparru diren (**ESEZ eta GJHak**), azpimarratu behar da antzekotasunak dituztela eta ezaugarri erkideak dituztela. Hala, elkarren osagarri izan daitezke eta elementu analitiko partekatuak atera daitezke.

Lehenago aipatu bezala, proiektuaren xedea bestelako interpretazio-esparruak eskaintzea da, hirugarren sektore soziala deskribatzeko erabili ohi direnen bestelakoak. Era horretan, EHSSko erakundeek lana erronka sozialekin lotuta dauden beste gako batzuetatik ulertuko da. Egin den azterketaren bidez identifikatu ahal izan da bi interpretazio-esparruek, ESEZk eta GJHeK, EHSSko erakundeak ikusgai jartzeko ahalmena dutela, batik bat erakunde horiek erronka sozialei erantzuteko eta sektorearen diagnostikoetan eskuarki baliatzen dena ez baizik eta egitura narratiboa edo eskema alternatibo bat eskaintzeko lanagatik.

EHSS osatzen duten erakundeek jardura aztertzeke orduan beste interpretazio-esparru batzuk baliatzea funtsezkoa da, halaber, **ekarpena agerian uzteko**. Aukera bat dira EHSSko posizio horretan aurrera egiten jarraitzeko, jardueraren emaitzak, balio erantsia eta sortzen duen inpaktua ikusarazteko, batez ere kohesio sozialaren eta pertsonarik zaurgarrienen eskubideak babesteari dagokionez. Zehatz-mehatz GJHen kasuan, ahalmen gehigarria identifikatu da: **hizkuntza erkidea** izateko aukera, hainbat eragile sozialena eta gizarte zibilarena.

Bi interpretazio-esparruak gida orientagarri gisa dira erabilgarri eta, gainera, EHSSko erakundeek zenbait helburu eta xede hartu ditzakete inspiratzeko, eta horiek lurreratu, aplikazio praktikoa eman eta errealitate zein behar ikusgaietan zehaztu. Nolabait, interpretazio-esparru orientagarrien aurrean, EHSSko erakundeek norabidea hartu, bideratu eta zehaztu egin behar dute: hots, makrotik abiatuta, mikroan lur hartu.

Arrazoi beragatik, **esparru horien garapena ez da ekintza zehatzetan edo noizean behingoetan soilik oinarritu behar**. Aitzitik, norbanakoengandik erakunde publikoetara —tokitik mundura— doan bizimodu batean islatu behar da.

Bi interpretazio-esparruek biltzeko ahalmena dute, bai sektorearen barruan, bai kanporantz. **EHSSko beste erakunde batzuekin eta eragile sozialekin harremanak ezarri eta indartzeko** aukera ematen dute. EHSSren 2020ko liburu zurian bertan, **10. erronka** beste eragile sozial batzuekiko harremanean jarrera irekia eta proaktiboa izaten jarraitzea da, eta **harremanetarako** eta elkarlanerako sare zabala, anitz eta arina sortzeko gai izatea. Gurearen gisako gizarte erlazional batean, beste eragile sozial batzuekiko harremanek garrantzi berezia dute. Dirudienez, gero eta ohikoagoa da arazo eta behar sozialei aurre egiteko orduan eragile ugariak parte hartzea, eta ezinbestekoa da elkarlana lantzea. Hori GJHekin zuzenean lotuta dago (**17. GJH**): esfera publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sustatzea eta sortzea helburuak erdiesteko, esperientzia eta aliantzetatik baliabideak lortzeko estrategiak aprobetxatuz.

Erakundeen harremanak zabaltzeak eta indartzeak aukera ematen du EHSSk presentzia handiagoa izan dezan beste arlo batzuetan, balio partekatua sor dezan beste eragile batzuekin batera (administrazioa, enpresak, etab.) eta eraldaketa sozialerako motor gisa eta sinesgarritasuna eta elkarriketarako gaitasuna dituen eragile sozial gisa indar dadin. Bestalde, **ahalmen erlazional** horretatik abiatutik, esparru horiek txertatzeak Euskadiren egungo **erronkei ematen zaien erantzuna hobetzeko** bide berria zabaltzen du, osotasunean, diziplinarrean eta eragile sozialen ekarpenekin osaturik. EHSSren 2020ko liburu zurian aipatzen den 12. erronkarekin zerikusia du horrek. Zehazki, eragile sozial gisa posizionamendu nabarmena bilatzea, gero eta konplexuagoa den mundu honetan eragiteko eta eraldaketa sozialeko prozesuak sustatzeko.

Interpretazio-esparru berriak sartzeari mesedegarria da entitateek beren jardura neurtzeko beste bide bat eduki dezaten, haien baliabide, proiektu, zerbitzu eta/edo ekintzek ESEZ eta GJHak erdiesteko lanean egiten duten ekarpenaren bidez. EHSSren 2020ko liburu zurian datorren 8. erronkarekin lotuta dago: koherentzia mantentzea erakundearen jardueraren eta misioaren artean, misioaren betetze-maila **ebaluatzea**, eta sektorearen elementu eta balio propioak neurtzeko edo ebaluatzeko tresnak sortzeko lan egitea. Halarik ere, EHSSn oro har uste da ez dela neurtzeko sistema mistoa prestatzeko modu egokia aurkitu, ez konplexutasunagatik soilik, baizik eta, orobat, bitartekoak, denbora eta sektorean elkarrekin hausnartzeko espazioak falta direlako, eta kanpoko kontrol-sistema bihur daitekeen beldurragatik, eta ez ebaluazio- eta hobekuntza-sistema.

Jarraian, bi interpretazio-esparruen **elementu partekatu nagusiak** azpimarratuko dira, kontuan hartu beharreko ahalmen izan daitezkeelakoan:

- Bi esparruak oinarritzeko hiru ardatz hauetan oinarrituta daude: jasangarritasuna, generoikuspegia eta diskriminaziorik eza.
- ESEZren eta GJHen esparrua justizia-, ekitate- eta integrazio-irizpideetan oinarritzen dira, eta ikuspegi osagarria ematen dute. Alde batetik, lehenak Europako herrialdeak sartzen dituztarte, eta bigarrenak, berriz, begirada zabaltzen du, beharrean dauden lekuak eta kolektiboak ere ikusteko. ESEZren kasuan, eskubideetan oinarritzen da ekintza bideratzeko. Horrek ibilbidea eduki dezake sektorean, eskubideen ikuspegia lanaren oinarria baita.
- Behar eta arazo sozialei hurbiltasunaren printzipiotik erantzuteko aukera ematen dute. Hala, batetik, lurraldearen ezaugarriak kontuan hartu daitezke, eta bestetik, erantzun egokitua eman daiteke, bertan bizi direnen identitateak, kultura, sexua, egoera sozioekonomikoa, adina, jatorria eta bestelakoak aintzakotzat hartuz.
- Bi interpretazio-esparruak dinamikoak eta malguak dira, eta dimentsio askoko aldaketa eta behar sozialen mende daude. Halatan, lurralde bakoitzak eguneroko errealitatera egokitu ditzake testuinguruan kokatuz, jardura-eremuaren arabera.
- Gai sakonetara jotzen dute, bizimoduarekin eta etorkizunarekin lotuta; gizartearen egungo egoera zalantzan jartzen dute eta gizarte solidarioagoa, kohesionatuagoa eta konprometituagoa sustatzen dute.

- Bi interpretazio-esparruek irizpideak eta ahaleginak batzen dituzte, lankidetzaz publiko-sozialerako aukerak sortzen dituzte halatan, eta elkarlanaren beharra ulertzen dute, osotasuneko eta kalitate oneko arreta eskaintze aldera.
- Hainbat mailatako eragileak interpelatu dituzte: administrazio publikoa (tokikoa, foru-mailakoa, autonomikoa eta estatukoa), EHSS eta sareak, gizarte zibila eta enpresa pribatuak. Bakoitzaren erantzukizun-maila kontuan hartzen dute, baita gaitasunak eta mugak ere.
- Lagungarriak dira identifikaziorako eta elkar errekonozitzeko, hala EHSSren baitan nola beste eragile sozial batzuekin. Aldi berean, EHSSren lana ikusgai egin eta transmititzeko aukera ematen dute, ohiko interpretazio-esparruetatik at; adibidez, jarduera-eremua, artatutako kontingentzia eta kolektibo hartzailea. Gaur egun, ez dira ekintza berriei heltzeko identifikatzen, baizik eta egiten den jarduera berrirakurtzeko esparru gisa.
- EHSSko entitateen lana identifikatu eta agerian utzi ez ezik, esparru orientagarri horiek jarduera-gida izan daitezke epe labur, ertain eta luzera.
- Datozen urteei begira, EHSSren jarduerak modu antolatuan eta elkarlanean planifikatzeko aukera ematen dute, eta, aldi berean, eskaera sozialaren aldaketa globalak aurreratzen dituzte.
- EHSSko entitateen balioa indartu eta baliozkotzen dute, oinarri hauekin: esperientzia, askotariko ikuspegiak, ikusmoldearen transmisioa, hartzaileen eta familien beharrak, eta eraldaketa eta mobilizazio sozialetarako gaitasuna.

6. infografia. Interpretazio-esparruen balioa



Iturria: geuk egina (2024)

9. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Anderson, Elizabeth (2014). Social Movements, Experiments in Living, and Moral Progress: Case Studies from Britain's Abolition of Slavery. The Lindley Lecture, delivered at The University of Kansas on February 11, 2014.
- Beck, Ulrich (1998). La Sociedad del riesgo. Hacia una nueva modernidad. Bartzelona: Paidós.
- Ben-Josef Hirsch, Michal (2014). Ideational Change and the Emergence of the International Norm of Truth and Reconciliation Commissions. *European Journal of International Relations*, 20(3): 810-833.
- Casado Casado, L. (2019). El nuevo Pilar Europeo de Derechos Sociales: ¿hacia un fortalecimiento real de la dimensión social de la Unión Europea? *Revista de Investigações Constitucionais*, 6(2), 375-404.
- Europako Batzordea. 2021/03/04. Eskubide Sozialen Europako Zutabearen Ekintza Plana Eskubide Sozialen Europako Zutabearen Ekintza Plana Brusela.
- Europako Batzordea. 2017ko azaroa. Eskubide Sozialen Europako Zutabea Eskubide Sozialen Europako Zutabea Europa.
- EAPN (2019). Pilar Europeo de Derechos Sociales. Seguimiento e implementación en España. Hemen eskuragarri: https://www.eapn.es/ARCHIVO/documentos/documentos/1577702829_pilar-europeo_vfinal_web.pdf
- Esping-Andersen, Gosta (1999). Social Foundations of Postindustrial Economies. New York: Oxford University Press.
- Euskadi. 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2008/12/s08_0246.pdf
- Euskadi. 185/2015 DEKRETUA, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. Hemen eskuragarri: <https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2015/10/06/185/dof/eus/html/>
- Euskadi. 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/05/1602096a.pdf>
- Euskadi. 12/1998 Legea, maiatzaren 22koa, Gizarte-bazterkeriaren aurkakoa. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2011-20655>

Euskadi. 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2006-21990>

FAO. (2019). El apoyo de la FAO para alcanzar los Objetivos de Desarrollo Sostenible en América del Sur: panorama actual. Santiago, Txile:

Eusko Jaurlaritza (2018). Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko estrategia. Hemendik hartua: <https://sareensarea.eus/wp-content/uploads/2023/02/EPTSSE-plan-de-la-XII-Legislatura.pdf>

Eusko Jaurlaritza. Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia (2021). 2030 Agendaren lehentasunen euskal programa: 2021-2024 jarduera-plana. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/prioridades_agenda2030/eu_def/adjuntos/EUS-Programa-prioridades.pdf

Goffman, Erving, 1974, Frame Analysis: An Essay on the Organization of Experience. Cambridge: Harvard University Press.

Luhmann, Niklas (1998). Sociología del riesgo. Mexiko DF: Triana, Universidad Iberoamericana.

Malgesini Rey, G. eta Sánchez Goncalves, Siara (2019). Pilar Europeo de Derechos Sociales: Seguimiento e implementación en España. EAPN. Hemen eskuragarri: https://www.eapn.es/ARCHIVO/documentos/documentos/1577702829_pilar-europeo_vfinal_web.pdf

Moreno, Luis (2017). Nuevos riesgos, nuevas desigualdades. En Kölling, Mario y Mari-Klose, Pau (coords.), Los retos del estado de bienestar ante las nuevas desigualdades (13-34). Fundación Manuel Giménez Abad. Hemen eskuragarri: https://www.fundacionmgimenezabad.es/sites/default/files/Publicar/publicaciones/documentos/actas13_retos_estado_bienestar_dig.pdf

Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia. (2021). Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren 2021eko Barometroa. 2023an berreskuratua, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokitik: <https://3seuskadi.eus/coleccion/euskadiko-hirugarren-sektore-sozialaren-2023ko-barometroa/?lang=eu>

Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia. (2021). Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko neurrien II. txostena. Euskadiko enpresen sektoreak bultzatutako Hirugarren Sektore Sozialaren sustapen-ekintza. Hemen eskuragarri: <https://3seuskadi.eus/coleccion/euskadiko-hirugarren-sektore-soziala-sustatzeko-neurrien-ii-txostena-2021/?lang=eu>

- Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia (2022). Euskadiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zuria 2020. Hemen eskuragarri: https://3seuskadi.eus/wp-content/uploads/LibroBlanco_DEF_2019-2020_eus-comp.pdf
- Ochoa León, Sara María (2014). El riesgo en la sociología contemporánea: de los riesgos sociales a los riesgos modernos. Documento de trabajo n14. Universidad Nacional Autónoma de México. Hemen eskuragarri: https://biblioteca.clacso.edu.ar/Mexico/pued-unam/20170612035713/pdf_410.pdf
- Nazio Batuen Erakundea. Garapen Jasangarrirako Helburuak Hemen eskuragarri: <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/>
- Nazio Batuen Erakundea (2019). Ekintzaren hamarkada. Hemen eskuragarri: <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/decade-of-action/>
- SDGF. (2022ko abuztuak 4). Sustainable development goals fund. Obtenido de Sustainable development goals fund: <https://www.sdgfund.org/es/de-los-odm-los-ods>
- Sareen Sarea (2022). Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala 2030 Agendaren eta GJHen aurrean. Ekarpena eta jarrera. Hemen eskuragarri: <https://sareensarea.eus/eu/albisteak/euskadiko-hirugarren-sektore-soziala-2030-agendaren-eta-garapen-jasangarrirako-helburuen-aurrean/>
- Snow, David eta Robert Benford (1992). Master Frames and Cycles of Protest. In A.D. Morris and C.M. Mueller, eds., *Frontiers in Social Movement Theory*. New Haven: Yale University Press.
- Swidler, Ann (1986). Culture in Action: Symbols and Strategies. *American Sociological Review*, 51(2): 273-286.